398

# ttipi ttapa

2005eko maiatzaren 19a • XXV. urtea



## Trikitixa Eguna Elizondon igandean
03

Maiatzaren 22an eginen da Elizondon Nafarroako VIII. Trikitixa Eguna. Irats trikitixa eskolako antolatzaileek 300 lagun espero dituzte igandean.



## Jon Apezetxeak 17 urte eta 30 txapel
32

Hamazazpi urte bete berritan bere 30. txapela irabazi du Jon Apezetxea pilotari goizuetarrak. Profesionaletan debutatu eta lau terdiko txapela irabaztea du amets.



04
BARRIDEEK HERRIARENDAKO EGITEN DUTE LAN

# Auzolanaren ohitura bizirik dago herri ttikietan

ARGAZKIA: ONDIKOL




2005eko
**telefono gida**
prestatzen ari gara

Zure datuak
aldatzeko
edo publizitatea
kontratatzeko
deitu **948 63 54 58**
telefonora



## DATUAK...

- Maiatzaren 22an eginen da Elizondon Nafarroako zortzigarren trikitixa eguna, Nafarroako Trikitixa Elkarteak antolatuta.
- Ekitaldi hau prestatzen buru belarri aritu dira, Josune eta Amaia Irastortza, Irats trikitixa eskolako irakasleak.
- Nafarroa osoko 300 bat trikitilari eta panderojole bilduko dira Elizondon.
- Ituren, Labaien, Bera, Sara eta Elizondon 80 ikasle ditu Irats trikitixa eskolak.


Argazkia: Joseba OLAGARAI
**Amaia eta Josune IRASTORTZA** *Irats trikitixa Eskola*

# «Hirurehun lagun bilduko gara Elizondon igandeko Nafarroako Trikitixa Egunean»

Joseba OLAGARAI

**Aurten iratsekoei egokitu zaizuela Trikitixa Eguna antolatzea...**
Urtean behin egiten den ekitaldia da eta aurten Elizondon egitea suertatu da. Guk Elizondon klaseak ematen ditugunez, guri egokitu zaigu antolatze lana.

**Zer egitarau izanen da Nafarroako Trikitixa Egun honetan?**
11:30ak aldera Elizondon bilduko gara Nafarroako trikitixa eskola guztiak. Han taldeka banatu eta Baztango herri guztietara joanen gara. Kalejira eginen dugu, denentzat gosaria izanen da eta gosaldu ondotik, ordubiak aldera, Elizondoko plazan bilduko gara. Han Kataluniako talde batek joko ditu zenbait kanta eta hortik bazkaltzera joanen gara. Bazkal ondotik zozketa eginen da, gero oroigarriak banatuko dira eta dantzaldia eginen da plazan Trikizio taldearekin.

**Zenbat trikitilari biltzea espero duzue igandean?**
Joan den urtean 300 bildu ginen, trikitilariak, gurasoak eta bertze kontuan hartuta. Aurten, kopuru hori mantentzea espero dugu. Nafarroa guziko trikitixa eskolak bilduko dira. Hemendik hasita, Elizondo, Labaien, Ituren, Lesaka... gero, Sakana aldekoak, Iruña aldekoak, Bianatik ere bai...

> «Trikitixak erraztasuna eskaintzen die haurrei. Gehien bat solfeorik gabe ematen dugu eta horrela aisago eta abudoago ikasten dute»

**Honelako egun bat antolatzeak lan handia emanen du. Zenbateko aurrekontua izaten duzue?**
Edozein gauzak bere lana du eta egia errateko, dirua izaten da arazorik handiena. 6.000 euro inguruko aurrekontua du honelako egun bat antolatzeak. Baztango Udalean dirulaguntza eskatu genuen eta 1.000 euro eman dizkigu. Eguraldi txarra eginen balu frontoia ere utziko digu. Eszenatokia, argia eta hori dena berak moldatuko du. Bertze guzia inguruko komertzioetan eskatuta lortu behar izan dugu. Gero, zozketako txartelak ere saldu ditugu eta guzi horrekin aurrekontua beteko dugula uste dugu.

**Duela urte batzuk trikitixa modan jarri zen... Moda hori pasatu da edo oraindik mantentzen da?**
Gehiena emana duela iruditzen zaigu. Orain ikastera etortzen dena benetan gustatzen zaiolako etortzen da. Furia hura pasatu zen.

**Zer du trikitixak haurrei horrenbertze gustatzeko?**
Erraztasuna. Guk, gehien bat solfeorik gabe ematen dugu, eta horrela, aisago eta abudoago ikasten dute. Kantak lehenago ikasten dituzte eta horrek motibatzen die.

**Gisa honetako egunak antolatzeak ere motibatuko ditu haurrak, kanpora ateratzeak, bertze herrietako trikitilariekin aritzeak...**
Bai, dudarik gabe. Haur batentzako motibazio handiena ikasi duen hori kanpora ateratzea da. Aunitzek lotsa ematen diela erraten dute, baina joan ondotik, gehienek ongi pasatzen dute eta kontent egoten dira, iroki egiten dira, kanpoko jendea ikusi, bertze musika mota batzuk ezagutu... Ikasleendako ez ezik irakasleendako ere ona da.



ARGAZKIA: ONDIKOL

**Lana egiteaz gain, barrideekin elkarbizitza bizirik mantentzeko aukera eskaintzen du auzolanak.**

HERRITARREN BORONDATEAK DIRU FALTA GAINDITZEN DU

# Herri ttikienetan oraindik bizirik dago auzolanaren ohitura zaharra

**Gaurko egunean, kobratu gabe inor guttik lan egiten duen garaiotan eta indibidualismoa kasik "bizimodu" bihurtu zaigunean, herri ttikienetan aspaldiko ohitura hau bizirik mantentzen da oraindik: auzolana. Herritarrek herriarendako norbere borondatez egindako lana da auzolana. Euskal Herrian ez ezik, Munduko bertze lekuetan ere ezaguna da: Galizan «andecha» deitzen diote, Irlandan «coor» eta Andeetan «pringa». Nafarroan, ordea, bere araudia ere bazuen auzolanak.**

**Aitor AROTZENA**

Auzolanaren ohitura gure inguruko herri ttikienetan mantentzen da. Baztanen, adibidez, gehienetan Balleko Udalak jartzen du materiala eta herriak, herritarrek, eskulana. Normalki etxe guzietara deia igortzen da eta etxe bakoitzak ordezkari bat igortzen du. Hori Malerreka eta Bertizaranako herrietan ere mantentzen da oraindik.

Toki aunitzetan, auzolana arautzen duen ordenantza ere onartu dute. Izan ere, etxe aunitzetatik auzolanera ordezkari bat edo bi bidaltzen badute, bertze batzuk ez dute inor igortzen. Honelakoetan, lanera ez joatearen truke 30 euro ordaindu ohi dira. Amaiurren, derrigorrezko auzolanaren eta borondatezkoa denaren artean bereizten dute, Juan mari Aleman alkateak aipatu digunez: *«Derrigorrezko auzolana denean, etxeren batek inor igortzen ez badu edo ezin bada gan, 30 euro ordaindu behar du. Baina badira auzolanak beharrezkoak edo derrigorrezkoak ez direnak, ermita konpontzea adibidez, eta honetan ez da kobratzen deus. Honetara gogoa duenak joaten da. Beraz, derrigorrezkoak direnak eta norberak bere borondatez egiten dituen auzolanak bereizten ditugu. Adibidez, kanposaindua moldatzea edo ur-ekartzea derrigorrezkoak dira, herritar guziei eragiten dien neurrian. Baina kapritxoak direnak, ermita zaharra konpontzea, hori ez da beharrezkoa, orduan…».*

Auzolanean aritzen den jendea ez da eraikuntza edo zurgintza lanetan profesionala, baina herri hauetan gehienek ofizioren bat ezagutzen dutenez, hori ez da lanaren kalitatean somatzen. *«Amaiurren eta, orokorrean, Baztango herri tail gehienetan, badira ofizioa duten hainbertze jende* –dio Alemanek–. *Orduan, bakoitzak berak dakien lan honetan aritzen da eta kalitatean ez da somatzen. Batzuetan, gogo eta borondate hobearekin egiten direnez, hobekiago gelditzen dira».*

### «Auzolanean ez da istripu arrisku handiagorik»

Auzolanaren inguruan, berri goibela ere izan da aurten. Arizkunen, Herriko Etxeko teilatuan lanean ari zela, erori eta hil zen Ortzegun Saindu egunean Domingo Borda Duhalde. Amaiurko alkatearen ustez, istripuak izateko arriskua ez da handiagoa auzolanetan. *«Arizkungo kasuan, preziski, ofizioa ongi ezagutzen zuen, baina deskuidoak eta istripuak leku guzietan gertatzen ahal dira. Norberaren neurriko lanak bilatzen saiatzen gara auzolanean eta bakoitzak ahal duena egiten du».* Auzolanaren etorkizuna gero eta zailagoa da, Juan Mari Alemanen ustez. *«Nahiz eta lana egin, auzolanean ongi pasatzen baldin bada, talde batek bederen beti segituko du. Herri ttiki gehienetan segituko du oraino. Zenbat eta handiagoa izan herria orduan eta zailagoa izanen da, inpertsonalizatuagoak daude, bakoitzak berea egiten du eta… 30 euro ordaindu eta auzolanera ez gateko aukera emanez gero, aunitzek ordaindu eta fuera!».*

## HERRITARREK HERRIARENDAKO EGINDAKO LANA



Gure herrietako hainbat obra auzolanean egin dira azken urteotan.

Arizkungo Elkartasuna Elkarteak Domingo Borda agurtzeko egindako idatzian, auzolanaren definizio eder bezain sentikorra plazaratu zuen: *«Auzolana herriarendako lana dugu, doanekoa, lanabesak eta materialak eramanez, besta egunetan arituz, bideak eta tokiak konponduz, herriarendako egina. Aunitzetan herri eta hiri handietan instituzioek konpontzen bide dituzten arazoak edo sortzen dituzten zerbitzuak auzolanaren beraren bitartez egiten dira Arizkun bezalako herri ttikietan, non horrela ez egitekotan, bizitza piskanaka itzali, gazteria urrundu eta etxeak, bideak zein espazio naturalak hondatuko baitziren. Gizarteak eta instituzioek auzolanaren errekonozimendua gaurkotua egin beharko lukete, bertze hainbat gizarte esparrutan gertatzen den bezala».*

Beran, jubilatu batzuk ezkildorrea moldatu zuten. Sunbillan lagun koadrila bat Espelosingo zubi zaharra moldatzen ari da; Zugarramurdiko mendizale talde batek Atxuria kaxkoa txukundu eta plaka ezarri zuten, Azpilkuetan batzarrak egiteko gela konpondu zuten, Erratzun labaderoa egin zuten eta orai posada egin dute… Juan Mari Aleman, Amaiurko alkatearen ustez, *«lanerako espiritua eta borondatea badelarik, horrelako auzolanak eginen dira. Herri ttikietan horrelako taldeak elkartzea errazagoa da. Lan hauek herriaren onerako direla ikusi behar da eta gainera, barrideekin gustora egon, giro ona sortu eta ongi pasatzen baldin bada, hobe. Giro hori herrietan gero eta gutiago denez, herritarrek ez dute elkar ikusten, beti autoarekin goiti eta beheiti, horretarako ere balio du auzolanak».*



## Juan Mari ALEMAN *Amaiurko alkatea*

# *"Herri giroa mantentzeko ere baliagarria da auzolana"*

**Amaiurren azken urteetan auzolan aunitz egiten ari dira. Gaurko egunean beharrezkoa ikusten duzu auzolana?**

Bai, bai, arras beharrezkoa da. Alde batetik lan batzuk egin ahal izateko, bertzenaz ez baita posible, dirurik ez dagoelako. Bertze aldetik, herri giroa mantentzeko ere baliagarria iruditzen zait. Bi arlo horiek elkartzen ditu auzolanak. Auzolanarekin batera izaten dira traguak, gero berendua, batzuetan besta ere bai… ez da lana bakarrik, herritarrak elkartzeko eta herriaren alde elkarlana egiteko gauza polite da.

**Urtean zenbat egunez izaten da auzolana?**

Normalki, urtean auzolan bat edo bi izanen dira. Suertatzen ahal da urteren batean zerbait konpondu behar izatea, ur-sarea edo, eta orduan sei hilabetez larunbatero gan behar izatea, baina horiek guti izaten dira. Gero, besten aitzinetik herria apaintzeko auzolana ere egiten da, sasiak mozteko eta horrelako gauzak.

**Herritarrek zer erantzun ematen dute?**

Ongi… Gan den urtean, besta aitzineko auzolanean igual berrogei lagun bildu ginen eta Amaiurren denetara 50-60 etxe izanen ditu. Gehienetan etxe bakoitzak ordezkari bat bidaltzen du, baina batzuetan bida ere etortzen dira.

**ttipi-ttapa**

HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1576-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 56
Faxa: (+34) 948 63 54 57
**www.ttipi.info**
**info@ttipi.net**

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Peio Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Aroztena.
**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Berriemaileak:** Esteban Aroztena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Aroztena, Amaia Odriozola, Ainhoa Iranzki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Irabe Kontsumitzaileen Elkartea...
**Imprimategia:** Gertu.
**Erakunde laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 28 € |
| Espainia | 28 € |
| Ipar Euskal Herria | 40 € |
| Europa | 40 € |
| Amerika | 108 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza | 23 € |

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du**




## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Lesakako idazkariaren erantzuna

Maiatzaren 6ko Ttipi-Ttapa aldizkarian, bai Irakurleak mintzo sailan eta baita ere hemariari dagokion kronikan, Lesakako Idazkaritzari buruz sortutako eztabaida plazaratu zen.

Hori dela eta, puntu batzuk argitzea beharrezkoa iruditzen zait.

1 – Lesakako Udalaren idazkaritza lanpostuan, behin-behineko kontratuaren bidez, 1995eko otsailaren 20an lanean hasi nintzen. Aurrez, euskera azterketa idatzia eta ahozkoa gainditu nituen.

Bestalde, hamar urte hauetan, nire euskera mailarengatik, sekula ez da arazorik sortu.

2 – 2002 urtean euskararen 11. urratsa gainditu nuen (12. urratsak EGA tituluaren balioa du).

3 – Hurrengo urtean EGA prestatzeko ikastarorako izena eman ondoren, azkenean ez nuen egin, Idazkaritzako lanak uzten ez zidalako. Geroztik, egoera ez da aldatu eta arrazoi horregatik niretzat beharrezkoak diren beste ikastaro batzuk (hirigintza edo informatika arlokoan batez ere) ez ditut egin. Zoritxarrez, eta Lesakako Udalaren egoera kontuan hartuz, epe motzean, behintzat, alde hortatik aldaketarik ez dela izango iruditzen zait.

4 – Nafarroako euskal zonaldean eta indarrean dagoen legediaren arabera, Udalek bi aukera dute euskerari dagokionez: baloratu edo exijitu. Orain arte Lesakako Udalak bere Plantilloa Organikoan ezarria zuena hau zen: lanpostu guztietan euskera jakitea, ahoz naiz idatziz. Baina ez ziren ezagupen mailak finkatzen. Horregatik, Udalak Hizkuntza Eskola Ofizialaren 4. maila eskatzea erabaki duenean, ez du euskera maila jeitsi, zehaztu baizik.

5 – Nafarroako Gobernuak 2005eko martxoaren 21ean hartutako erabakiaren arabera (apirilaren 11ko Nafarroako Egunkari Ofizialean argitaratutakoa), idazkari eta kontuhartzaileen lekualdaketa lehiaketetarako puntuaziotik % 80 a, Gobernuak berak ezartzen du: % 60a aintzinatasunaren arabera eta beste % 20a "prestakuntza, irakaskuntza eta ikerkuntza" kontuan hartuz. Gelditzen den % 20a Udalen eskutan dago.

Aurreko Ttipi-Ttapan aipaten den "neurriko zapata" egiteko, balitekz toki batzutan Udalek duten % 20ko puntuak erabiltzea. Lesakako kasuan, apirilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, aho batez erabaki zen Idazkaritza lanposturako merituorik ez jartzea, hau da: % 20 hau ez erabili.

6 - Hogei urte baino gehiago daramat idazkari lanean eta funtzionarioa naiz, eszedentzian, hori bai. Beraz, Lesakara edo beste edozein herritara joateko ez dut azterketarik egin behar, lekualdaketa lehiaketan parte hartu besterik ez.

Horregatik ere, ez dakit hemen geldituko naizen edo ez. Azkenean prozedura automatikoa izango da, lanpostu hori eskatzen dutenei eta bere curriculumaren arabera, Nafarroako Gobernuak erabakitako puntuazioa aplikatuz.

7 – Azken arauak indarrean sartu zirenean Udaleko bi taldei nire hizkuntza maila azaldu nien. Gaineratu nuen EGA ateratzeko saioa egiteko prest nengoela baina, Idazkaritzako lan egoera kontuan hartuz, hori epe labur batean ez zitzaidala posible iruditzen.

8 – Hortaz aparte, gai honetan zerikusia duen partea naizenez eta Udalaren aholkularitza juridikoa nik egiten dudanez, erabakirik hartu aurretik beste norbaiten aholkua eskatzeko esan nien: Nafarroako Gobernuto Toki Administrazio Departamentuarena edo Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarena batez ere.

9 - Azkenean bi jarrera desberdinak izan dira: EGA eskatu edo ez. Biak legezkoak eta errespetagarriak direla iruditzen zait.

10 - Hala ere, beginune falta onartezina da. Zoritxarrez dirudi sarritan ez dakigula eztabaidatzen iraindu edo mindu gabe. Nire ustez, jendearen askatasun eta duintasunari errespetua erakusten ez zaionean, euskera berreskuratzeko prozesuak ez ditu emaitza onik ematen.

Gainera, nire kasuan, bakarrik datuen parte bat zabaldu da. Ez dute aipatu, adibidez, aldizkari juridikoetan euskararen lege-araubideari buruz argitaratu ditudan artikuluak.

11 – Dirudienez, Lesakako Udalak hartutako erabakiaren aurka errekurtsoak jarri behar dira. Ongi iruditzen zait. Horrela, gaia auzitegietan aztertuko dute eta prozedura guztiaren legezkotasunari buruzko epaia izango dugu.

2005eko maiatzaren 10ean.

**Andoni ESPARZA LEIBAR**
**Lesakako Udaleko behin-behineko idazkaria.**

## OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa**k bere esku izanen du horretarako eskubidea.

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Navarra 2005-04-27

*«Izugarri polita izanen litzateke nere ahizparekin batera Joku Olinpiko batzuetan konpetitzea, baina oraindik hagitz gazteak gara eta aitzinetik bide luzea egin behar dugu. Orain gogor entrenatu behar dugu».*
*«Institutuan galdetzen didate nola gustatzen zaidan ehizira joatea eta mendian, ehiztari aunitz harrituak gelditzen dira begira. Ehizira joateko eskubidea izanen dugu bada!».*

Itsaso FAGOAGA
Lesakako tiralaria
D.Navarra 2005-04-27

*«Nire liderren aldeko lana eginen dut Giroan, hori argi dago. Helburu pertsonalak baditut eta horiek, Cunego eta Simoniren ondoan ahalik eta urrutien ailegatzea da. Sentsaziorik onena Cunego edo Simoniren garaipenaren zati bat zurea dela sentitzea eta karrera jokoan dagoen egunotan baliagarria zarela ikustea izanen litzateke. Beraien ondoan banago azkenean, sailkapen orokorrean ere ongi ibiliko naiz».*

Patxi VILA
Berako txirrindularia
D.Navarra 2005-05-03

## • 11 GALDERA LABUR •

**Platoko argiak itzaltzen direnean, nolakoa da Estitxu Fernandez?**
Platoan agertzen den hori bai, baina gauza gehiago ere bai, txarrak eta onak. Bi poloetako pertsona naiz, ez dut erdiko terminorik.

**Zer ikusten duzu kamarari begiratzen diozunean?**
Jende aunitz, baina ez dut inor berezki imajinatzen. Jendeari momentu ona eman nahi diot.

**Gidoirik gabeko programa... Zertaz solastuko duzu?**
Gustatzen zaizkidan gaiei buruz solastu. Sexualitateari edo bikote harremanei buruz orduak egon naiteke solasean gidoirik gabe.

**Kalean bota dizuten astakeriarik handiena?**
Telebistari buruz handiak erran dizkidate, txarrerako eta onerako.

**Bertsolari bat, futbolari bat eta telebistako aurkezle bat?**
Bertsolaria Maialen, zalantza izpirik gabe, nafarra eskatzen badidazu Silveira; futbolaria, Eneko nere anaia; aurkezleak, Julia Oterori aunitz begiratzen diot.

**Euskaraz telebista ttiki batean edo erdaraz handi batean?**
Transmititzeko gaitasun handia euskarari zor diot, hizkuntza maite dudalako. Gaztelaniaz ere aritzen naiz, baina ez da berdin.

**Oztopo handia da telebista ligatzerako orduan?**
Ez, ez... Nik ez dut inoiz problemarik izan ligatzeko. Telebistan ateratzen naizenetik, guttiago igual.

**Zer sentitzen duzu autografo bat sinatzen duzunean?**
Ezeroso sentitzen naiz, baina haurrei sinatzea gustatzen zait. Helduak etortzen direnean harritzen naiz.

**Aunitz, asko, esan, erran, oso, hagitz... Ez zara nahasten?**
Batua egiten saiatzen naiz, baina nere batua, nabari dadila nongoa naizen.

**Zer sentitzen da Estitxu izan beharrean telebistako Estitxu Fernandez zarenean?**
Naizen bezala hartzea nahiago dut, nere gauza on eta txarrekin.

**Telebista aurkezlea eta sexologia. Biek elkartzea eskatuz gero?**
Gustora eginen nuke telebistan sexualitateari buruzko saioa.



**Estitxu FERNANDEZ**
*ETBko aurkezle lesakarra*






LANA

# Zalaingo lanpostu-murrizketak ez omen die langile finkoei eragingo

## Langile ebentual guztiak, aldiz, lanik gabe gelditukodira 2007rako

**ttipi-ttapa**




Argazkia: ONDIKOL

**Etorkizunean, Zalaingo behin behineko langile kopurua plantilla osoaren %10a baino guttiagokoa izatea eskatuko du Enpresa Batzordeak.**

Condesa enpresak Zalainen daukan lantegirako prestatu duen plan estrategikoan ageri den lanpostu murrizketak ez die langile finkoei eragingo. Bai ordea, behin behineko langileei, ebentualei, horietako berrogeita hamabortzek beraien lanpostuak galduko baitituzte bi urteko epean. Honela jakinarazi zuen Zalaingo lantegiko Enpresa batzordeak astearteam Nafarroako Parlamentuko alderdien aitzinean egin zuen agerpenean.

Jakina denez, 2005-2010 Plan Estrategikoaren arabera, Condesak 140 lanpostu murriztuko ditu Zalainen eta Aceralia-Arcelor enpresari Zalain erosi ziotenean zeuden 480 langiletatik 340ra pasatuko dira 2007. urte erdi alderako. Gaur egun 420 langile ari dira, azken urte terdian ez baitzaie kontratua berritu behin behineko 60 langileri. Hasiera batean Condesak 34 langile finko ere soberan zeudela aipatu zuen, 15 bulegoetakoak, 8 mantenimendukoak eta 11 produkziokoak. ELAko bortz ordezkarik, LABeko lauk, UGTko bik eta Comisiones Obreras eta Confederacion de Cuadros sindikatuko banak osatzen duten Enpresa Batzordearekin zenbait negoziazio egin ondotik, zuzendaritzak asmo hori bertan behera utzi du. Honela, bulegoetako 15 langile eta mantenimenduko 8 langile finko horiek produkziora pasatuko dira. Hori bai, Zalainen dauden langile ebentual guztiek beraien postuak galduko dituzte hemendik 2007ko uda bitartean, kontratuak akautzen zaizkien neurrian.

Etorkizunerako Zalaingo behin behineko langile kopurua plantilla osoaren %10a baino guttiagokoa izatera mugatzen duen klausula bat sartzea nahitaezkoa dela iruditzen zaio Enpresa Batzordeari.

BERTIZ

# Ingurumenaren Nazioarteko Eguna ekainaren lehen aste hondarrean ospatuko da

**ttipi-ttapa**

Bertizko Natur Parkeak Ingurumenaren Nazioarteko Egunarekin bat eginen du aurten ere eta hainbat ekitaldi antolatuko ditu ekaineko lehen aste hondarrean. Ortziralean, ekainaren 3an, Baztan, Bertizarana, Bortziriak eta Malerrekako ikasleei «*Gure mitologia ipuinean*» antzeslana eskainiko zaie. Ostaitz taldearen eskutik, birziklatze lan ezberdinak egiteko modua ere izanen dute. Larunbatean, Iturburua ingurura bisita gidatuak eginen dira. Igandea izanen da egun nagusia eta aurten zenbait berrikuntza izanen dira. Ohiko ospakizun eta ateraldiekin batera, puzgarriak eta kirikoketa besta ere izanen dira.

BIZIKLETA TAILERRA
KATER-BIKE
errepide, mendi, trekking eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa

SAROBE okindegia
SANDERS pentsuak

Zalain jatetxea
Hostala
14 logela, bainu eta TBrekin

ttipi ttapa
www.ttipi.info
ttipi-ttapa@ttipi.net
☎ (0034) 948635458

bortzIRUDI
KARTELAK · KAMISETAK · BISERAK · TXISKEROAK
FOTOKOPIA DIGITALAK, KOLORETAN, ZURI-BELTZEAN · PLANOAK
ENKUADERNAZIOAK · PLASTIFIKAZIOAK · PEPERTEGIA · BULEGO MATERIALA
DISEINU GRAFIKOA · LOGOTIPOAK · ERROTULOAK · INPRENTA

BERA

# Aisialdiko formakuntza zikloa eskainiko da Kultur Etxean

## Maiatzaren 21ean eta 28an

Amaia eta Ainhoa

Udaleko Gizarte Gaietarako Batzordeak, Gazteria azpibatzordeak, Aisialdiko formakuntza zikloa antolatu du datorren maiatzaren 21 eta 28rako. Formakuntza zikloak denetara 15 ordu iraunen du eta aisialdiko begiraleei, udalekuetan lan eginen dutenei, eta oro har gaiarekin interesa duen jendeari zabalik dago. Lehendabiziko saioa teorikoa izanen da, plangintza eta ebaluazioarena gainekoa. Ikastaroan, aisialdiko ekitaldiak nola antolatu eta prestatu aztertuko da. Bigarren saioa, berriz, praktikoa izanen da, eta horietan tailerrak eta jokuak landuko dira, adin ezberdinen arabera egin daitezkeen tailerrak, euskal jokuak...

Ikastaroaren ordutegia 10etatik 14etara eta 16etatik 19,30etara izanen da Berako Kultur Etxean. Ikastaroan izena eman ahal izateko 012ra deitu beharko da. Parte hartzaileek 18 urteak izan beharko dute, eta euskaraz jakitea ezinbertzekoa da. Ez da esperientziarik behar ikastaro honetarako. Matrikularen prezioa 10 eurokoa da.

### *Escena Dantza Jaialdia*

Aurtengo Escena Dantza Jaialdiaren barnean, maiatzaren 28an Iberica de Danza Konpainia ikusi ahal izanen dugu "Año X" ikuskizunarekin. Konpainia honek urteotako koreografia lan adierazgarrienen bilduma ekarriko du, izan ere new-folk, dantza estilizatua, bolero eskola, dantza historikoa eta flamenkoa ere ageri dira ikuskizun honetan. Nafarroako Gobernuak eta Kultur Batzordeak antolatu dute saio hau eta Kultur Etxean izanen da arratsaldeko 20.00etan. Sarrera 3 euro ordaindu beharko da.





Utzitako argazkia

### *Berako txistulari gazteak sarituak*

**Apirilaren 30ean Antonio Intsausti "Txobito" Txistulari Gazteen Txapelketaren lehen edizioa egin zen Hernanin eta Berako gazteez gain hainbat herritako gazteek parte hartu zuten: Gasteiz, Eibar, Segura, Irun, Hondarribia, Pasaia eta Hernanikoak bertzeak bertze. Txapelketa hiru mailetan banatua zegoen eta bakarlari nahiz taldeek gehienez sei minutuko obrak jo behar zituzten. A mailan (12 urte bitarteko bakarlariak), Ane Eltzaurdia eta Julen Baleztena aritu ziren eta D mailan (16 urte baino gutxiagoko taldeak) Saioa Baleztena, Nahia Artieda, Beñat Iturria eta Jon Irazokik osatutako taldea. Julen Baleztenak, A mailakoen artean, bigarren postua lortu zuen 150 euro eta oroigarria eskuratuz eta gainerakoek diplomak eraman zituzten.**



Argazkia: Josean OLAGARAI

### *Larungo kable zaharrak bildu dira*

**1950. hamarkadan Gariñen Etxolan benta ireki zen, eta nahiz eta lehendik ere baziren Larunen komertzioak, Larun Gain benta izan zen turismoaren motorra. Hasieran gauzak bizkarka edo mando gainean eramaten ziren, baina 1951n Kauleko zolatik Larungo kaxkoraino 2 kilometroko kablea muntatu zuten. Gero ere Larungo Kaiola eta Udako Etxea bentek jarri zuten berea. Historikoak izan dira kable hauek baina mende erdia lanean eraman ondotik, joan den apiril bukaeran kendu zituzten.**

ANSONEA Jatetxea
- Eguneroko menua eta karta
- Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 · 948 631 155 · BERA

ZUBIONDO JATETXEA
Alkata karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

BAR BOTXO OSTATUA

LESAKA

# Irain eskolaren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldiak prestatu dira

## Ekainean argazki erakusketa zabalik izanen da



Irain Eskolak utzitako argazkia

**Gisa honetako argazkiak ikusteko modua izanen da Irain eskolaren 25. urteurrena ospatzeko eginen den argazki erakusketan.**

Aitor AROTZENA

Irain eskolak 25 urte bete ditu aurten eta hori ospatzeko ekitaldi egitarau zabala antolatu du.

Maiatzaren 18an, asteazkena, Rosa Arburuak solasaldia eskainiko du 19:00etan Herriko Etxean, "*1940-1960. Bortziriotako Gaztiak: Amerikarako emigrazioa*" izenburupean. Maiatzaren 19ean, ortzegunnan, "*Berunezko soldadutxoa*" antzezlana eskainiko dute eskolan 15:00etan.

Maiatzaren 20an, 20:00etan, Txekia eta Slovakiatik etorritako Pauel eta Lenkaren kontzertua eta berendua eskainiko da konbentuan eguraldi ona eginen balu edo eskolan.

Maiatzaren 21ean, larunbatean, goizean jokuak eta tailerrak izanen dira haurrentzako konbentuan edo eskolan eta futbol partiduak helduentzat frontoian. Eguerdian bazkaria izanen da Koxkonta jatetxean, haur, guraso, ikasle eta ikasle ohiei zuzendua. Txartelak maiatzaren 15a arte eskuratzen ahal dira Telebote ostatuan. Arratsaldez ere izanen dira ekitaldi gehiago, hauek ere eskolan edo konbentuan, eguraldiaren arabera. Mus txapelketa, 17:30etan haurrentzako ipuin kontalaria eta merendua izanen dira, eta Txakain txaranga denontzat.

Ekainaren 2an, argazki erakusketaren inaugurazioa eginen da eskolan. 17:00etan kafe baten inguruan solasaldia izanen dute ikasle ohiek, "Eskola garaiko oroimenak" berrituz. 19:00etan, "Ikasleak urteetan zehar" izeneko bideo emanaldia eskainiko da. Ekainaren 3an, "Horroroskopolandia" haurrendako antzezlana eskainiko da goizeko 11etan ikasleen eskutik. 20:00etan antzezlan hori bera eskainiko zaie gurasoei.

Irain Eskolaren 25. urteurreneko ekitaldiekin akautzeko, ekainean argazki erakusketa eta kamiseten salmenta eginen da eskolan.

## Herriko musika bilketa egiteko beka deialdia egin dute Udalak eta Eusko Ikaskuntzak

Udalak eta Eusko Ikaskuntza erakundeak "Lesakako musika bilketa" izeneko beka deialdia egin dute. Bilketa honen bitartez, Lesakako seme-alaben eta Lesakarekin zerikusia izan duten musikagileen konposizio kultuak, musika herrikoia eta musika herrikoiaren gainean zenbait egilek egindako egokitzapenak bildu nahi dira. Horretarako, elkarrizketak eta grabazioak egin beharko dira, baita artxibo, liburutegi eta bildumen kontsulta ere. Bekaren diru hornidura 3.600 eurokoa izanen da eta sei hilabeteko iraupena izanen du, proiektu irabazlea aukeratzen den momentutik aitzinera. Hautagaiak egin beharreko lanaren arloan esperientzia izatea kontuan hartuko da eta bakarka nahiz taldeka aurkezten ahal dira. Hori bai, taldeka aurkezten direnean zuzendari bat izendatu beharko dute. Hautagaiak Eusko Ikaskuntzako kide izanen dira edo bertzela, lana hasterako kide izateko eskaera egin beharko dute. Beti ere, Lesakan edo inguruko herrietan erroldatutakoek lehentasuna izanen dute.

Bekaren eskaera, bi hizkuntza ofizialetan edo bietako batean, horretarako prestatuak dauden inprimakietan aurkeztu beharko dira maiatzaren 27a baino lehen Eusko Ikaskuntzaren edozein bulegotan. Inprimakiak ere Eusko Ikaskuntzaren bulegoetan edo www.eusko-ikaskuntza.org web-orrian eskura daitezke. Epaimahaia Eusko Ikaskuntzak eta Lesakako Udalak osatuko dute eta hautagaien artean egokiena zein den erabakiko dute.

Beko
Lore eta landareak
Fran auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637826

Iku Bide
LESAKA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Gasoila etxera eramaten dugu
Tel. 948 63 74 60
31770 Lesaka (Nafarroa)

ETXALAR

# Bi haurrek bakarrik eginen dute lehen jaunartzea heldu den maiatzaren 29an

## Gasna Feria Eguneko bazkarira joateko txartelak salgai daude dagoenekoz

**Joseba eta Nerea**

Heldu den maiatzaren 29an izanen dira aurtengo komunioak eta bi haurrek bakarrik eginen dute. Amaia Zelaieta Tomasena eta Beñat Iparragarri Olasagasti. Orain arte ez da inoiz pasatu komunioa hain haur guttik egitea, azkeneko urtetan banazbertze bortz edo sei izan baitira. Hala ere, badirudi hurrengo urteetan ere haur gutti izanen direla komunioa egiteko.



ARGAZKIA: NEREA ITURRIAK UTZIA

**Joan den urtean neska-mutikok egin zuten lehen jaunartzea. Aurten bi bertzerik ez dira izanen.**

### *Gasna Feria Eguna*

Heldu den ekainaren 5ean eginen da aurtengo Gasna Feria Eguna. Urtero bezala, bazkaria izanen da eguerdiko 2etan eta harat joateko txartelak, Herriko Ostatuan, Elutsan edo Altxatako bazkideren bateri eskatuta eros daitezke. 18 euro balioko dute helduentzako txartelek eta 15 haurrentzakoek. Heldu den maiatzaren 30ean akabatuko da epea.

### *Hitzaldia Kultur Etxean*

Ortzegun honetan, maiatzak 19, Foresna-Zurgai elkarteak hitzaldia eskainiko du Kultur Etxean. "Insignis pinuaren problematika bidasoa eskualdean" du izena hitzaldiak eta arratsaldeko 7etan izanen da. Gaia interesatzen zaien guztiak gonbidatuak daude.

### *Urte bukaerako bidaia*

Kurtso akabera allegatzean, Landagain eskolako ikasleek urte bukaerako bidaia egiten dute ikasturteari amaiera emateko. Nahiz eta oraindik hilabete bat gelditzen den kurtsoa bukatzeko, dagoeneko talde batek kanpoan egonaldia egin du. Haur hezkuntzakoak izan dira lehenak kanpora joaten. Joan den maiatzaren 12 eta 13an Zarautzen egon ziren, Bortzirietako gainerako eskoletako ikasleekin batera. Bertze gainerako talde guztiak datorren astean joanen dira kanpaldian. Lehen ziklokoek maiatzaren 23 eta 24a Beiren pasatuko dute. Bigarren ziklokoak, aldiz, Lizarrara joanen dira maiatzaren 25etik 27ra bitarte. Eta bukatzeko, hirugarren ziklokoak Zuhatzara joanen dira maiatzaren 23tik 26ra arte. Kanpaldi hauetan guztietan Etxalarko eskolako haurrek, Bera, Lesaka, Igantzi eta Arantzako haurrak izanen dituzte lagun.

### *Zakurrak trebatzeko eremua*

Usoa ehiztari elkarteak ehiza zakurrak trebatzeko lur eremua izanen du hemendik aitzinera. Orain arte bakoitzak ahal zuen gisan hezten zituen ehiza zakurrak, baina orain Udaletxeak Urtsumiatsa eta Atxuria bitartean dagoen lur eremua utzi die.










ARANTZA

# Ikasturte bukaerako ateraldiak, bidaiak eta kanpaldiak abiatu dira eskolan

## Apirilaren 30ean Ekaitzak Goizuetara antolaturiko mendi ateraldia 50 lagunek egin zuten

Nerea ALTZURI

Ikasturtearen azken hilabeteetan izanik, urtero bezala, herriko eskolako lagunek irteera eta oporralditxoetan partaide izanen dira. Joan den ortzegun eta ortziralean eskolako ttikienek Zarautzen egonaldia egin zuten.

Heldu den astean eta bi egunez, astelehenean eta asteartean, lehendabiziko zikloko ikasleak Beiren egonen dira. Hirugarren zikloko lagunek, maiatzaren 23tik 26ra Zunzara joanen dira. Heldu den hilabetean, ekainaren 16tik 22ra, DBHko zazpi ikaslek eta bi irakaslek ikasketa bukaerako oporraldia Bartzelonan pasako dute aspaldiko urteetan bezala.



Argazkia: Xabi ZUGARRAMURDI

**Apirilaren 30ean berrogeita hamar lagun animatu ziren Goizuetara oinez joateko, Ekaitza elkarteak egindako deialdiari erantzunez. Eguraldi ederra lagun izan zuten eta Goizuetan dutxa beroa, bazkaria goxoa eta besta giroa zuten esperoan. Ilunabarrean autobusean itzuli ziren Arantzara, laister batean berriz ere esperientzia errepikatzeko gogoarekin.**

### *Herritarren bertso sarituak*

Nafarroako bertso paper lehiaketako sariak ere herrira etorri dira. Joan den maiatzaren 4an, Berako Kultur Etxean Bortzirietako bertsolari gaztetxoen lanak entzun eta egileek sariak hartzeko ekimena egin zen. DBH mailan Jon Jorajuria eta Amaia Lukanbio sarituak izan dira; hirugarren eta laugarren mailetan, Ibai Etxeberria eta Gurutze Iparragirre gaztetxoen lanek sariak jaso dituzte. *"Nere urtebetzea da baino ez nago pozik"* gaiari buruzko bertsoak Ibaik idatzi zituen, Gurutzeren bertsoek, *"Bart gauea ezin nuen lorik egin"* izan zuten gaia.

Zorionak denei eta hurrengo alean, bertze sariketa baten berri emanen dugu zoriondu bidenabar.

### *Goizuetara mendi ateraldia*

Joan den apirilaren 30ean, larunbatean, berrogeita hamar inguru lagunek Goizuetara mendi ibilaldia egin zuten Ekaitza Elkarteak antolaturiko deialdiari erantzunez. Eguraldia lagun, lau ordu pasatxoko ibiladia izan zen eta gehienak herrikoak baziren ere, eskualdeko bertze mendizale batzuek ere parte hartu zuten ekimenean. Goizuetara ailegatu eta dutxa on bat hartu ondotik, Umore Ona elkarteak prestaturiko bazkari goxoa dastatu zuten elkartean bertan. Ilunabarrean autobusez bueltatu ziren eta egun ederra pasatu zutela erran digute.

Ekaitza Elkarteak balorazio hagitz positiboa egin du, herritar aunitzek parte hartu baitzuen ibilaldian. Gisa berean, Ekaitzak eskerrak emateko probextu nahi ditu lerro hauek. Hurrengo aleetan ere, antolatzen ari diren bertze ekintza batzuen gainean informazioa emanen dizuegu, xuxen-xuxen.







IGANTZI

# La Villa ostatua eta jatetxea errentan emateko lehiaketa deialdia egin du Udalak

## Eskaintzak maiatzaren 21a baino lehen aurkeztu behar dira




Argazkia: Joseba OLAGARAI

***Ttikien bertso-saioa Udaberriko bestetan***

**Aspaldixko joan baziren ere, ezin argazki batean bildu gabe utzi aurtengo Udaberriko bestak. Eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleek bertso-antzerki saio polita eskaini zuten eta Maddalen Lujanbio, Egaña edo Peñagarikanoren bertso gogoangarriak abestu zituzten.**

**ttipi-ttapa**

Igantziko Udalak, Herriko Etxeko beheko eta lehenengo solairuetan dagoen La Villa ostatu-jatetxearen zerbitzua errentan emateko lehiaketa deialdia egin du. Errentaren iraupena hamar urtekoa izanen da eta bortz urte gehiago luzatzeko aukera izanen da. Hilabeteko errenta 300 eurokoa izanen da eta horreri BEZ zergaren %16a gehitu beharko zaio. Horixe izanen da lehiaketaren hasierako prezioa. Eskaintzak aurkezteko epea maiatzaren 21a arte, larunbata arte irekia dago eta horretarako 601,01 euroko behin-behineko fidantza ordaindu beharko da. Klausula administratibo partikularren plegua interesatuen eskura dago Igantziko udal idazkaritzan. Esleipenduna hautatzeko orduan zenbait irizpide hartuko ditu kontuan Udalak, bakoitzari dagokion neurriaren arabera. Garrantzitsuena programazioa eta zerbitzuaren planifikazioa izanen da, gehienez 60 punturekin. Proposamen ekonomikoarengatik gehienez 38 puntu eskuratzen ahal dira; langile ezinduen kopurua plantillaren %3 baino handiagoa baldin bada puntu 1 eskuratuko da eta enpresaren lan egoera puntu batekin baloratuko da. Puntu bat emanen zaie bere gaitasun teknikoa egiaztatzerakoan behin-behineko langileen kopurua %10etik beheitikoa duten enpresei eta 0 puntu emanen zaie baldintza hori betetzen ez duteneí. Bi eskaintza ekonomiko edo gehiagoren artean puntuazioan berdinketa gertatuz gero, gaitasun teknikoa egiaztatzean langile ezinduen ehuneko handiena duen enpresak izanen du lehentasuna.














DONEZTEBE

# Zentsura-mozioak aitzinera egin ondotik Jose Cruz Irigoien da herriko alkate berria

## Ramon Etxebeste kargu gabetu dute EAtik eta PNVtik ateratako sei zinegotziek

**ttipi-ttapa**

Jose Cruz Irigoien da maiatzaren 11tik aitzinera Doneztebeko alkate berria. Jakina denez, Doneztebeko udalean izaten ari den legealdi zail eta korapilotsuari segida emanez apirilaren 29an, Ramon Etxebeste alkatearen aurkako zentsura-mozioa aurkeztu zen, Doneztebeko udalaren historian izan den lehen zentsura-mozioa.

Maiatzaren 11n egindako ez ohiko batzarrean, aldeko sei botu izan zituen zentsura-mozio honek, Alfredo Zugarramurdi, Jesus Juanena, Serafina Grazenea, Teresa Gaspar, Vicente Maylin eta Jose Cruz Irigoienenak. Ramon Etxebeste, orain arte alkate izan denak, bere botua eta Belen Arregi eta Mari Jose Rekarte Eusko Alkartasunako taldekideenak bakarrik izan zituen. Etxebesteren ordezkoa alkatetzan Jose Cruz Irigoien izanen da. Irigoien



ARGAZKIA: AITZIBER LARRABURU

**Ramon Etxebeste alkate ohia idatzia irakurtzen, Jose Cruz Irigoien alkate berriaren ondoan, maiatzaren 11n egin zen ez-ohiko batzarrean.**

Eusko Alkartasunaren zerrendan bigarrena izan zen azken hauteskundeetan, Etxebesteren ondotik. Baina berak eta Vicente Maylinek taldea utzi egin zuten, zenbait gorabeheren ondotik, independiente gisara lan egiteko. Ez da legealdi honetan izan den banaketa bakarra: PNVko zerrendan ageri ziren Serafina Grazeneak eta Teresa Gasparek ere taldea utzi zuten, Alfredo Zugarramurdi talde-buruarekin zuten konponezinak medio nonbait, hauek ere independiente gisara jarduteko. Orain, ordea, Zugarramurdi eta Juanenarekin eta EAtik ateratako bertze bi zinegotziekin bat egin dute zentsura-mozioa babesteko. Sei zinegotzi hauek independiente gisara jardun beharko dute, PNVko Napar Buru Batzarrak ez baitu Zugarramurdi eta Juanenaren jarrera onartu eta alderditik kanpo gelditu baitira.

Zentsura-mozioa jartzeko arrazoiak azaldu dituzte sei zinegotzi hauek ez-ohiko batzarrean. Beraien ustez, Doneztebeko Udala *«egoera kaxkarrean dago, gobernu talde indartsu baten faltan»*. Horren eraginez, *«zenbait espediente geldirik daude eta herritarrendako interesa duten proiektua gauzatzeko ekimen falta somatzen da»*. Udalaren ekimen politikoa babesteko gehiengorik ez dela ere azpimarratu dute mozioaren bultzatzaileek. Sei zinegotzi hauek aipatu dutenez, herritarrek Donezteberen alde lan egiteko ardura eman zietenez, gobernu-taldean aldaketa bultzatzea nahitaezkoa da, udal politika berrindartu eta herria hobetzeko.

Ramon Etxebeste alkate ohiak zentsura-mozioa jartzeko argudioak ez ditu onartu eta Doneztebe gobernatuko duen taldea, *«bai EAtik eta bai PNVtik ateratako sei transfugekin osatuta»* dagoela azpimarratu du.






ITUREN

# Larunbat honetan Sahararen aldeko besta eta igandean Trinitate Eguna

## Aurtizko ur-hornidura, saneamendu eta zolaberritze lanak lehiaketara atera dira

Arkaitz MINDEGIA

Maiatzaren 22an izanen da Trinitate Eguna eta, urtero bezala, baselizan ordu ezberdinetan elizkizunak izanen dira goiz goizetik hasita. Eguerdian Ibintza kultur taldeak bazkaria antolatu du eta izena ohiko tokietan ematen ahal da. Bertzalde, urtegietan herritar aunitzek goiz goizetik eguna erromeri giroan pasatzen dute eta arratsaldeko 7ak aldera, herrira jautsiko dira denak. Arratsaldez herriko plazan egiten den dantzaldiarekin akituko da aurtengo egitaraua.



**Urtero bezala hainbat bisitari, erromes eta mendizale hurbilduko dira Trinitate egunean Mendaurko kaxkora.**

### *Aurtizko obrak*

Iturengo udalak Aurtizko karriketan ur-hornidura eta saneamendu hodiak berritu eta karrikak zolaberritzeko lanak adjudikatzeko lehiaketa ateri berri dute. Obra berean Iturengo zeharbidean eta Kastinea eta Lopetxenea etxeen ondoko pasabideetan, edateko uraren eta saneamenduko hodien berritzea eta karrikak zolaberritzea sartzen da.

Obra hauek Sainz de los Terrenos Goñik prestatutako proiektuaren arabera eginen dira. Osotara 758.452,82 euroko aurrekontua dute eta proposamenak udal idazkaritzan aurkeztu beharko dira maiatzaren 27ko eguerdiko 14:00ak baino lehen.

### *Sahararen aldeko besta*

Maiatzaren 21ean, Sahararen aldeko besta eginen da. Helburua, udan Saharako haurrak inguru honetara ekartzeko dirua lortzea da. Horretarako, ilunabarrean Donostiako rock talde bat arituko da Iturengo Plazan eta talojatea ere izanen da.















## SALDIAS

# Urrutia erremontelari txapeldunari omenaldia eginen dio herriak

Maiatzaren 29an hainbat ekitaldi antolatu dira, erremonte partida tartean

**ttipi-ttapa**

Saldiasko herriak, Miguel Mari Urrutia herriko erremontelaria eta azkeneko binakako txapelketaren irabazleari omenaldia eskainiko dio maiatzaren 29an. Goizeko 9:00etatik aurrera txistulariek kalejira eginen dute kalez kale. 10:30etan Meza Nagusia izanen da. 12:00etan erremontelari profesionalen arteko partida bikaina ikusteko modua izanen da Saldiasko pilotalekuan: Koteto Ezkurra eta Miguel Mari Urrutia, Patxi Zeberio eta Iñaki Lizasoren kontra. Gaurko egunean, Galarretan nahiz Euskal Jaien ere, horrelako partida gutxi ikusten dira!



Migel Mari Urrutiak erremonteko txapel handia jantzi du bikoteka.

14:00etan herri bazkaria izanen da honako menuarekin: piper beteak, salda, legatza, solomilloa, tarta eta izozkiak. Edaria, kafea eta kopa ere, 35 euroko prezioaren barnean sartuak daude. Txartelak maiatzaren 27ko gaua baino lehen eskuratu behar dira Leitzako Beatrizenea tabernan, Doneztebeko El Café ostatuan, Saldiasko Herriko Ostatuan edo Sunbillako Kontxa zerbitzugunean. Bazkalondoa ez ezik, egun guzia alaitzen Patxi akordeoilaria arituko da.

ANZABAL
AGENTZIA
Zurich Aseguruak
• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
Lan aholkularitza
• Nomina eta Aseguru Sozialak
Aholkularitza fiskala
• Errenta Deklarazioak, IVA...
Inmobiliaria
• Baserri, borda, pisu, etxebarren salmenta eta alokairua
Gestoria
• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko kametaren berritzea eta edozein gisako gestioak

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa • saneamendua • gasa
✆ 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

ELIZONDON EREKI DUGU!
abartan
CERRAMIENTOS • ITXITURAK
PVC eta ALUMINIOA

## ARANO



**Lurra uste zen lekuan harria agertu da.**

# Ontzorrotz eta Etzabalgo pistak moldatzeko 23.000 euro erabili dira

**Kontxi KLABER**

Ontzorrotz eta Etzabal parajeetako pisten hobekuntzarako 17.000 euroko aurrekontua emana bazegoen ere, azkenerako 6.000 euro gehitu behar izan dituzte. Hiru kilometro pista ireki dira eta beste bi hobetu, lana hasiera batean uste zuten bainan gehiago kosta da, izan ere lurra zegoela uste zen lekuan harkaitza agertu da eta harria puskatu behar izan dute.

### *Taberna alokatzeko*

Herriko taberna alokatzeko, joan den ostegunean, maiatzaren 12an itxi zen epea informazioa jaso nahi zuenarentzat. Maiatzaren 19an bilera eginen dute aurkeztutako guztiekin, 6 bikote guztira eta hortik jakinen dugu nork hartzen duen herriko taberna.


Zeure uda
Teknia Corporaen
hasten da
Teknia
Tel.: 943 660 150
10 Gorputz sesioko bonoarekin, aurpegi tratamendu
pertsonalizatua opari
5 Aurpegi sesioko bonoarekin, gorputz tratamendua opari
(Promozio hauek trukagarri dira antzeko ezaugarriak
dituzten zerbitzuekin)
IRUNGO BIHOTZEAN.
Juan de la Cruz, 5 (SAC/HAZen ondoan) · 20302 · Irun · info@tekniacm.com

LEITZA

# Mari Jose Aranburu Sarrioko langilea lan istripuan hil zen

## Lanera sartzerakoan furgoneta batek jo zuen maiatzaren 10ean

**ttipi-ttapa**

Mari Jose Aranburu Billabona, 53 urteko leitzarra maiatzaren 10ean hil zen, Sarrio lantegian lanera sartzear zela furgoneta batek kolpatu zuenean. Ezbeharra 13:40ak aldera gertatu zen eta langilea kasik berehala hil zen. Biharamonean, Sarrioko lankideek ordubeteko lan uztea egin zuten, 12:00etatik 13:00etara eta lantoki atarian elkartu ziren. Lankidearen heriotza salatzeaz gain, horrelakoak berriz gerta ez daitezen beharrezko segurtasun eta prebentzio lanak hartzea eskatu zuten. Istripua gertatu zen tokian lore sorta ageri zen.


ARGAZKIA: JAIONE ASTIBIA

**Sarrioko langileak, Mari Jose Aranburu lankidearen heriotza salatzeko elkarretaratzea egin zuten lantegi atarian.**

### *40.355 kilo traste handi*

Iaz Leitzan 40.355 kilo traste handi bildu ziren eta hauetatik, 12.496 kilo berreskuratu ziren, uztailean horretan hasi zirenetik. Izan ere, bilketa kopuruei dagokienez, lehengo urte osoko datuak daude jasota, baina traste hauek berreskuratzen uztailetik aurrera hasi ziren Emauseko Traperoak. Ordura arte, kalean edo industrialdean pilatuta egoten ziren traste handiak, beren berreskurapena ezinezko eginez.

Zerbitzu hau hilabeteko bigarren eta laugarren asteazkenetan eskaintzen dute traperoek. Aurretik 012ra deitu behar dela, datuak emanez.

### *Bi udal lanpostu betetzeko lehiaketa deialdia*

Udalak ofizial administraria eta zerbitzu anitzetako langile lanpostuak betetzeko lehiaketa deialdia egin du, bi udal langileren ordezkapenak egiteko. Bi lanpostu hauetarako, 5 hilabetetarako behin behineko lan kontratua eskaintzen du, eta deialdi honek ordezkapenetarako lan poltsa osatzeko ere baliagarria izanen dela jakinarazi dute.

Ofizial administrariaren ordezkapena egiteko, Lanbide Heziketako II edo baliokidearen tituluaren jabe izan behar omen da eta C mailako soldata izanen du. Curriculum osatua maiatzaren 27ko 13:00etarako aurkeztu behar da; Zerbitzu anitzetako langilearen lanposturako, berriz, Graduatu eskolarra edo baliokidea behar da, eta D mailako soldata eskaintzen dute. Dokumentazioa aurkezteko epea, hilaren 23ko 13:00etan bukatzen da. Bi lanpostuetan euskara jakitea guztiz beharrezko da.

### *Guardia Zibilaren jokabidea salatu du Udalak*

Leitzako Udalak, apirilean egindako batzarrean, Guardia Zibilak «*herritarrengan eragindako mehatxu eta beldurra, eta egoera arriskutsua*» salatu eta «*Leitzatik, Euskal herri osotik bezala, joan dadin*» eskatu zuen.

Larrain herri plataformak aurkeztutako mozioaren arabera, apirilaren 24an «*ordu ttikitan sirena joka, gero herri erdian kontrola jarri eta ondoren Guardia Zibileko hiru agente, uniforme osoarekin, Leitzan tabernaz taberna ibili ziren, edanak, bertako langile eta bezeroak izutuz*».

Azkenean, Torrea tabernan guardia zibileko beste patruila bat azaldu eta eraman zituen hiru lankideak. Mozioa oso-osorik onartu zuten Aralarek eta EAK. UPNk ere bat egin zuen mozioarekin, gertakizunen salaketari dagokionez behinipein.

## FLASH

### *Harrobiari buruzko galdeketa igandean*

Igande honetan, maiatzaren 22an, eginen da harrobiari buruzko herri-galdeketa. Bozketa ohiko lekuetan egin beharko da, lau hautes-mahaietan: udaletxean bi izanen dira eta eskolan beste biak. Ordutegia, goizeko 9etatik 20:00etara. Guzira, 2.571 herritarrek izanen dute «Leitzan harrobia bai edo ez?» galderari erantzuteko modua.

### *Ikastolako ikasleen argazkiak CDan bilduak*

Mikel Deuna ikastolako 1981 eta 1991 urte bitarteko ikasleen argazkiak CD batean jaso ditu urte haietan irakasle zen Mikel Ilarregi irakasleak, eta nahi duen guztiarentzat eskura jarri: horretarako nahiko omen da Maimur edo Astiz liburudendetan edo Karrape Irratian bizena eman eta eskaera egitea. Ikasle-ohien elkarretaratze batean bota omen zituen argazkiak eta eskaria ikusita, sailkatu eta 417 argazkiko bilduma prestatu du. Materialaren gastuak ordaintzeko, 10 euro ordaindu behar omen dira.


BELARRA
OSTATUA
JATETXEA
Amezti karrika
DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06

# nolako ikasketak halako lana

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

## GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

**ARRASATEko Campusa**

Lehen zikloa

- Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa (Telematika eta Telekomunikazio Sistemak).

Bigarren zikloa

- Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza.
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza.
- Informatikan Ingeniaritza.
- Industri Ingeniaritza.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza.

**GOIERRIko Campusa**

Lehen zikloa

- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.

JARDUNALDI IREKIAK

**ARRASATEko Campusa**

943 71 21 92

- 2. zikloa: maiatzak 26, 17:30etan.
- Biteri Ikastetxe Nagusia: ekainak 11, 11:00etan.

## ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**OÑATIko Campusa**

Lehen zikloa

- Zuzendari Idazkaritza.

Ziklo luzea

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura.
  - Finantza Zuzendaritza.
  - Merkataritza Zuzendaritza.
  - Erakundeen Kudeaketa.

**BIDASOAko Campusa**

- Enpresa Zientziatzan Diplomatura.
  - Nazioarteko Merkataritza.
  - Enpresa Logistika eta Garraioa.

## HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**ESKORIATZAko Campusa**

Lehen zikloa

- Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitatea.
- Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitatea.
- Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira espezialitatea.
- Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitatea.

Bigarren zikloa

- Psikopedagogian Lizentziatura.
  - Hizkuntzen Psikopedagogia.
  - Esku-hartze Psikopedagogikoa.

Ziklo luzea

- Giza Zientziak Lizentziatura.
  - Giza Zientziak Enpresari aplikatuta.
  - Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.

JARDUNALDI IREKIAK

**ESKORIATZAko Campusa**

943 71 41 57

- maiatzak 19, 18:00etan.

*inskripzio epea zabalik*

www.mondragon.edu

## GOIZUETA

# Bardeetara irteera antolatu du Umore Onak ekainaren 4-5eko astebururako

### Goikogainerako bide bazterrak ormigoituko dira

Esteban AROTZENA

Bardeetan barrena oinez edo bizikletaz ibiliz eta Argedasko parke naturala ikusiz ahaztezina izan daitekeen asteburua igaro nahi duenarentzat aukera ederra eskaintzen du Umore Ona elkarteak ekainaren 4 eta 5ean eginen den bidaian.

Virgen del Yugo aterpetxeko loa, autobusa, larunbateko afaria eta igandeko gosariak 26 euro balioko dute. Amaiarenean izena ematerakoan botako dira 10, eta gainerakoa, txangoaren egunean.

### *Lan istripuak*

Andoni Zubiri, herriko gaztearen istripua zela eta, patronalaren jarrera salatuz komunikatua kaleratu zuen Goizuetako Segi gazte erakundeak. Ahalik eta etekin haundienak lortzea omen da nagusien helburu bakarra, gazteak baldintza kaxkarretan lan egitera kondenatzen dituzten bitartean.

### *Ikastaroak*

Ingelesa, igeriketa, mekanografia eta informatika ikastaroak antolatu ditu Gurasoen Elkarteak hurrengo uztailerako. Adin guztietako herritarrek izanen dute horretarako aukera.

### *Goikogainerako bide bazterrak ormigoituko dira*

Herritik Goikogaina bitarteko karreteraren hainbat zatitan kunetak ormigoitzen hasi berriak dira Nafarroako Gobernuko langileak. Lanak bukatzen direnean orain baino seguruagoa izanen da errepide hau, baina bien bitartean, hilabete pare batetan, oztopoak, geldialdiak eta mozketak jasan beharko dituzte hortik zirkulatzen dutenek. Horrela jakinarazi du Udalak bando baten bitartez.




Utzitako argazkia

**Xapo aldizkariaren laugarren zenbakia kaleratu zen lehengo astean. Kultur Taldearen eta Euskara Zerbitzuaren elkarlanari esker urtean behin argitaratzen den aldizkari honen 28 orrialdeak hagitz interesgarri eginen zaizkie herritar guziei, bertako gaiak baitira gehien bat hor jorratzen direnak, era arin eta atsegin batean erabiliak gainera.**

## ARESO

# Haurren arteko harremanak hobetzeko saioak egin dira eskolan

Juana Mari SAIZAR

Herriko eskolan adin berekoen arteko harremanak nola hobetu gai garrantzitsua jorratu dute irakasle eta orientatzaileek ikasturtean zehar. Ordu terdiko hiru saio egin dituzte eta sikologo batek gurasoei pautak eman dizkie. Eskolan eta kalean elkarbizitza hobetu nahi da.

### *Alkate eta zinegotzien gastuak*

Nafarroako Gobernuak 12.500 euroko dirulaguntzak eman dizkio Udalari alkate eta zinegotzien gastuetarako. Batzarretara biltzen den ordezkariari dietak ordainduko zaizkio eta alkate, abeltzaintza, higintza eta mendiko zinegotziei banatuko zaizkie gelditzen den dirua.

### *Gañarbeko pista*

Gañarbeko pistak moldatzeko %70eko dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak. Inguru horretan dauden zuhaiztietara errazago iritsi eta egurra ateratzeko erabiliko da pista moldatua. Lanaren aurrekontua 15.000 eurokoa da.



Argazkia: Javier OLAZABAL

*Santa Kruzeko erromeria*

**Maiatzaren 8an egin zen Santa Kruzeko erromeria. Gurutze-bidea egin ondotik meza entzun zuten erromesek Santa Kruzeko ermitan.**



Ezkerretik eskuinera: Frantxis Bolard, Paul ?, Philippe Larzabal, Pantxo Valencia, Ibat ?, Sebastien Berrouet, Olivier Miricq, Etienne Bereau (lehendakaria), Bruno Lapendeguy, Benoit Harotcarene, Sébastien Berasateguy, Jerôme Dommeinge, Alain Zubieta, Laurent Albistur (lehendakari ordea), Cédric Alvarez, Labayle, Denis Bodart, Alain Lassere eta jarria Sebastien Urdambilleta.

# Eskubaloiaren aintzinamendua Senperen

**Etienne BEREAU, zer egiten duzu SPUCen (Senpereko kirol elkartea)?**

Ni, Etienne BEREAU eskubaloiko zuzendaria naiz Laurent ALBITUR eta Jean Marie ESPONDArekin, 2 neska talde entrenatzen ditut. Lehenik hasi nintzen atezain, gero eskubaloia gustatu zitzaidan eta hartu nuen mutiko talde bat 10 urtekoak, senior mailarat eramateko.

**Nola hasi zen eskubaloia Senperen?**

Neskak lehenik hasi ziren duela 35 urte eta mutikoak 1989an. Gantxikiko gela egin zelarik hasi ginen.

**Zonbat talde zineten?**

Hastapenean talde bat besterik ez zen, seniorreko mailan, eta gero, pixkanaka gazteak etorri ziren eta talde bat egin zuten.

**Eta orain?**

Orain 10 talde badira gaztenetatik helduak arte eta eskubaloiko eskola 30 haurrekin.

**Lehendakari izanki zer da zure helburua edo asmoa?**

Jokalariak jostatzen baldin badira hori da nire plazerra.

**Zer nahi duzu edo zer ekarri behar Senpereko eskubaloia garatzeko?**

Sos gehiago behar dugu, sos emaile gehiago eta ikusi zein mailetan ari den lehen taldea. Gantxiki sala berritzeko maila horren arabera.

**Zer desiratzen ahal dizugu 2006ako?**

Talde guztiak ahal bezain urrun joatea eta gazteak eskubaloia segitzea Senpereko taldea gorarazteko. Senpertar gehiago izatea, eskubaloia segitzeko eta diru gehiago sartzea.

Pantxo Valencia



# Senpere-Altsasu parekatzeari buruz herritarrei galdeketa

**1) Zer ekartzen ahal dio Senpereri parekatzeak?**
**2) Zuk pertsonalki nola parte hartzen ahal duzu parekatze hortan?**
**3) Aurkezpen bilkuran hizkuntzaren problema aipatu da. Nola ikusten duzu arazo hori?**
**4) Ze ekitaldi ikusten duzu parekatze hori burutzeko?**



**Argitxu FADON**
**25 urte**
**Turismo Bulegoko langilea**

1) Gauza positiboak bakarrik ekartzen ahal dizkio. Hala nola, euskaraz mintzatu, jende berria ezagutu, bertze lurralde bat ikusi, Nafarroako ondarea ezagutu, lagun berriak egin, euskara ikasten ari direnentzat hobetzeko parada eta bere burua idekitzeko aukera.

2) Ez dut pertsonalki parte hartzeko aukera izan baina prest naiz edozein gauzetan parte hartzeko.

3) Egia da euskararen egoera txarra dela iparraldean eta podere publikoek ez dute ezer egiten merezi duen tokia emateko. Oso tristea da. Baina jendeak egiazki komunikatzeko gogoa baldin badu, hizkuntza ez da oztopo bat izan behar. Euskara maila ezberdinak daude: ikasten ari direnak, euskaldun zaharrak, euskaldun berriak. Garrantzitsuena da mintzatzea. Denon erantzukizuna da euskara hedatzea.

4) Gauza ainitz egiten ahal dira. Adibidez asteburu kulturalak antolatu, Herri Urrats bezperan afari bat...



**Pelo FAGOAGA**
**56 urte**
**SPUC-eko lehendakaria**

1) Duela 5 urte hasi zen parekatzea. Garai hartan kontseiluan nintzen eta ez dut uste gauza handirik ekarri zion Senpereri; ez zen ezagun parekatze hori bazenik. Gure elkartea usatua da parekatzeekin eta, pentsatzen dut jendeen irekitzea ekartzen ahal duela.

2) Guk denbora asko pasatzen dugu gure aktibitatie, konpetizioak antolatzen, beraz, elkartean parekatze hori aipatu dugularik ondotik segitzea erabaki dugu. Gainera, momentuz ez dugu ongi sesitzen nola egiten ahal den.

3) Gure harremanetan gutti ari gira euskaraz eta haiek ez dakit ainitz erabiltzen dutenez. Guretzat ona litaike euskara entzutea. Bestalde, nik harremana kantuaren bidez egitea ikusten dut, zahar eta gazte denek elkarrekin; kantua baita jendea erakartzen duen gure lokarri errex eta alegerena.

4) Parekatzea gazteek egin behar dute. Gure elkartean 250 bat gazte dugu eta maite dute jendearekin elkartzea. Horren egiteko asteburu oso bat hartu behar litzake, errugbia, pilota edo eskubaloi lehiaketak egiteko eta festari ere bere tokia egiteko. Horrek ere baitu bere garrantzia ezagutzetan.



**Anne Marie IZEAGA**
**45 urte**
**Zirikolatzeko idazkaria**

11) Parekatze horrek elgar ezagutzak lagunduko ditu. Dantza mailan trukaketak egiten ahal ditugu dantzen ikasteko.

2) Trukaketak antolatuz bi dantza taldeen dantzak ikasteko eta erakustaldiak eginen genituzke.

3) Dantza taldean haur batzuek eta heldu batzuek ez dakite euskara, beraz, trukaketa baita elgar ezagutza zailtasunekin egiten da.

4) Gure lehen proiektua da harat joatea primaderan. Agian espero dut horrek luzaz segituko duela.

**Joana HARANBURU**
**24 urte**
**Oxtikeneako kidea**

1) Trukaketa horrek Senpereri irekitze bat ekartzen ahal dio, baita Euskal Herriko beste eskualde bateko jendearen ezagutza. Senpere eta inguruko herrietan ere entzuten da trukaketak Frantziako beste herriekin egiten direla. Lehenik ezagut dezagun Euskal Herria!

2) Oxtikenea ez litzake lehen lerroan izanen. Herriko Etxeak denbora ainitz eman du trukaketa hori burutzeko beraz guk, presoen taldearekin batera, Zaldibiako jendearekin egin dugu trukaketa. Joan den urte bukaeran, presoen aldeko bazkari bezperan, kontzertu bat egin ginuen Zaldibiako eta Donibane Lohitzuneko musika taldeekin. Biziki ongi pasa ginuen eta harremana mantendu nahi dugu.

3) Arazo hori ez da Senperen bakarrik. Orokorra da. Euskara ofiziala ez den bitartean, ez dakien jendeak ez du mintzatuko eta dakienak ere euskaraz mintzatzen diren tokiak atxeman beharko ditu bere hizkuntza erabiltzeko. Altsasurekin harremanetan sartzerakoan, espero dut euskara izanen dela komunikazio hizkuntza.

4) Trukaketa hori burutzeko ekitaldi sinpleak ikusten ditut. Adibidez afari-kontzertu bat Altsasuko eta Senpereko talde batekin, kirol mailan lehiaketak, dantza erakustaldiak.... bakoitzak bere arloan lan eginez.



# Senperen ezkila bat erori zen urte hura



Jendakian dudan Joseph Iriarte Urguri Geretaldean sortua eta egotuak, orai Sarako ospitalean da, kondatu izatu nau gertakari hau : Joseph 1916an sortua da eta 1927a zitaken hau gertatzean edo beharba 1928a.

Lehen apezek egiten zuten katixima, ezkila dorrean den barnean, bigarren galeriatik du sartzea. Egun batez Jean Barbier erretor zenak bataiatu beharra zuen Martta Hiribarren Harismendikoa, hura eguerditan bataiatzeko, haurren katixima goizago akabatu zuen. Jaun erretora eta haurrak elizatik ateratu ordu, ezkila erori zen katixima egiten zen barnean gelditu.

Frango zalu erretora eritu zen eta bere ordaina hautatu zuen.

Donibane Garazin bikario zen Arnaud Borotra apeza arbonarra.

Jean Barbier hil zen 1931ko urriaren 20an eta Arnaud Borotra sartu erretor 1931ko abenduaren 20an horma handi batekin. Lehenik altxa arazi zuen parropiako sala "Emak hor" deitzen duguna. Bertze lanen ondotik, nahi zuen ezkila hautsiaren ordaina, ezkila dorretik entzun. Herritar guzien borondate onari esker, erdietsi zuen ezkila berri bat egiten ahal izaitea.

Ezkila berria bataiatua izan zen 1936 urtean bazko zahar igandean. Monseigneur Houbout etorri zen Baionatik bere *"bi monseigneur prélat de la sainteté"* deituekin. Batto Mgr Daguerre eta bertzea Mgr Adéma senpertar Zaldubiren iloba, Dourisbouretarren osaba.

Ospakizun hunkigarriak eginez iragan zen egun eder hura. Ezkila bataiatzean, haren aitatxi-amatxiak ziren ezkilarentzat sosik gehien emana zutenak. Amatxi zen: Muxkoeneko Joxepa Latalbade eta aitatxi zen Grazien Dourisboure Mgr Adémaren iloba ez hain aspaldi auzapez sartua Senperen. Domaia zen Matxin zena hila baitzen aintzineko urtean. Kantatzen ahalko zuen bertzerik da.

Ospakizun hura egin zenean 12garren urtean nintzen.

Jean Pier Soudre

# Etxeko lurrik ez dezagun sal



Hemen Herrikoa 90. zenbakitik hartua

Bi gogoeta egin nahi nuzke gaur, beren ustez gure borda, etxe eta etxalden jabe direnekin.

Gure etxeak diren bezala dira. Frangotan bi edo hiru edo lau generazione etxetik joan baitira, bi eskuak hutsik, etxeari utziz zituen porroskak, hunen bizia eta geroaren segurtatzeko.

Etxean gelditu denak ez zuen plata hobia. Lana dorpea, xaharren karga, eta beste batzuetan haurndiak untsa penaturik arranatu behar, sekulan porru landare baten lekurik saldu gabe.

Lur bat saltzen delarik, hori dena da saltzen:

— joan direnek etxeari eskainia

— gelditzen denaren sakrifizioa, zama, lana eta izerdia,

Saltzen da Euskal Herri puska bat.

Erranen duzue gaurko haizeak ez duela eskualde hortarat ufatzen, bainan ez badugu hostoak bezala bizi nahi, guri da jakitea norat joan nahi dugun, edo guttienez norat ez, eta haize horri ihardoki eta gogor egitia.

Graxi Etchebehere

Zer diferentzi da Palestinarren eta euskaldunen artean?

Palestinarrei lurrak eta funtsak armez kentzen dizkietela, Euskalduneri berriz ele xuriz eta diruz.



Argazkia: Daniel VELEZ

**«Ibañeta» antzerkia, 1967an Baionako antzoki handian eman zutena. Piarres Larzabal eta Telesforo Monzon.**

# Telesforo de Monzon 1904-2004

## Abenduaren lehenean izan zen bere sortze-egunaren urteurrena

XXgarren mendean, Jose Antonio Agirre lehendakariarekin batera, Euskal Herriak eman duen gizonik ospetsuena da Monzon:

—1904 eko abendoaren 1ean sortua, familia ariztokrata bateko semea

—1981eko martxoaren 9ean hil zen, Donibane Lohitzunen

—1933 Madrilgo deputatu abertzalea izan zen

—1936-1939 Euskal Gobernuko barne miniztro.

—Gerla garaian ihes egitera bortxatua izan zen, Donibane Lohitzunen kokatu arte. Senpereko mendixketan zaldiz ibiltzen zen.

### Monzon antzerkigile

Bederatzi obren erdian inportanteenak :

*Menditarrak, Zurgin zaharra, Eneko Bizkai eta Maria Lorka, Behorraren ostikoa*

### Monzon kantagilea

*Batasauna, Aupa gizon, Itziaren semea, Lepoan hartu ta segi aurrera, Bai euskarari.*

### Monzon iheslariekin batera

1969an, aita Larzabalekin "Anai Artea" sortu zuen.

### Monzon politika gizon

1979an Herri Batasuna partidoa sartzen da eta behin baino gehiagotan deputatu izendatua izan zen.

**************************

Garai hartako, Euskal Herri kontserbadore Ybarnegaritza ezin ukituan, hauxe zion euskal gazterian Telesforo Monzonek:

*"Izan zaizte bizian ausartak, ez egon ixilik, tripak jaten"*

Eta alegia batekin apaintzen zuen bere errana.

*"Behin bazen gizon bat txintxoa, xarmanta, pollita, itxura onekoa, Euskal Herriak milaka eman dituen bezalakoak. Bainan guziz erabe zen, etxetik ezin ateratua. Bere ateratze maitagarriena: etxe inguruan ibiltzea zen. Etxetik ateratzen zelarik , edo merkatura edo plazara edo bestara edo elizara laster etxeratzen zen, jendekin egoteaz beldur balitz bezala.*

*Badakizue nola hil zen? Ez duzue pentsatuko! Etxe inguruan zabilarik egun guziez bezala, teila bat buru gainera erori zitzaion eta bertan hil zen".*

MM

# e g i t a r a u a

**maiatzak 20 ostirala**

"WICHITA"

00:00

**maiatzak 21 larunbata**

KOMA + eko4

23:30 12€ + kontsumizioa

**maiatzak 27 ostirala**

"THE BIRRAS"

00:00

**maiatzak 28 larunbata**

"GARRAXI"

00:00 8€ + kontsumizioa

eta ekainean...

ekainak 04 larunbata

## GATIBU

diska berriaren aurkezpena

Lur diskoteka

2:00ak arte sarrera dohainik. Aintzinet 8€+kontsumizioa | Ostiralero sarrera dohainik

Elizondo (Nafarroa)

www.lurelizondo.com

thegraficanticommittee

BAZTAN

# Almandozko Bestaberriak maiatzaren 25etik 29ra

Korpus egunean herritarren arteko herri kirol jardunaldia eginen da




Argazkia: Ramon APEZETXEAk utzia

**1988ko Baztandarren Biltzarra egunean, lehendabiziko saria eskuratu zuen Almandozko herriak prestatutako karrozak.**

### Asteazkena 25
### Bezpera Egune

**13:00etan** Altxaferuek bestei hasmenta emateko. **21:00etan** Baztanzopak Leku-Ederren eta ondotik besta AGERRALDEren soinuez alaitue.

### Ortzegune 26
### Korpus Egune

**8:00etan** aurora herriko karriketan barna Bixentek lagundue goiza alaitzeko. **10:00etan** auroran parte hartu dutenendako pasta eta moskatela. **12:00etan** Meza nagusie herriko San Pedro elizan eta ondotik prozesioa. **13:00etan** herriko plazan luntx berexie, txistu eta dantzariez alaitue. **17:00etan** emakume eta gizonen pala partiduek herriko plazan. **18:30etan** herritarren arteko herri kirol jardunaldie. **22:00etan** kalderetia eta ondotik, musika bestan segi nahi duenandako.

### Ortzileria 27
### Haurren Egune

**10:30etan** Eriz Magoa herriko plazan eta ondotik jokuek haurrendako. **11:00etan** mus txapelketako finalerako klasifikatoria. **16:00etan** herriko plazan haurren pilota partiduek. **17:30etan** txokolatada. **18:00etan** puzgarriek herriko plazan. **22:00etan** gazte afarie Leku-Ederren. **24:00etan** gazte eta ez hain gazte direnen arteko kalejire herrien barna, musikaz lagundue. Ondotik, herriko plazan AGERRALDErekin soinu eta dantza orainik inderra duenaindeko.

### Launbeta 28

**12:00etan** mus txapelketaren finala. **14.00etan** zikiro-jatia herriko plazan. **16:00etan** bazkarie pixket jausteko soinu eta dantza saioa AGERRALDEren eskutik. **22:00etan** orainik gosia duenandako afarie Leku-Ederen. **24:00etan** gau-pasa CHUCHIN IBAÑEZ eta JALISKO BAND taldearen eskutik.

### Igendia 29

**12:00etan** Meza Nagusie eta jaun-hartzia. **17:00etan** puzgarriek eta soinue herriko plazan. **21.00etan** zozketa berexie bestetan parte hartu dutenen artian. Ondotik Gaixua Ni bestei akabera emateko.





BAZTAN

# Kirol instalazioak moldatzeko dirulaguntzak eskatu ditu Udalak

Belar artifizialeko futbol zelaia egiteko 687.672 aurrekontua aurkeztu da

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gaztediaren kontseilariak kirol instalazioetan inbertsioak egiteko atera duen dirulaguntza deialdiaren barnean, zenbait eskari egin ditu Balleko Udalak. Gehien bat, frontoietan teilatua moldatu eta bertze lanak egiteko eskatu ditu Baztango Udalak dirulaguntzak. Honela, Elbeteko Ameztialde frontoia, 34.731,93 euroko aurrekontuarekin; Erratzuko Etxelebert frontoia, 111.704,33 euroko aurrekontuarekin; Gartzaingo frontoia, 44.325,16 euroko aurrekontuarekin; Lekarozko Txiki-Polita frontoia, 86.236,92 euroko aurrekontuarekin eta Arizkungo frontoia, 391.654,13 euroko aurrekontuarekin, moldatzeko subentzioa eskatu da. Honetaz gain, Elizondozko Giltxaurdi udal kirol instalazioan handitze lanen bigarren fasea egiteko asmoa du Udalak, 302.558,60 euroko aurrekontuarekin eta belar artifizialeko futbol zelaia egin nahi da, 687.672,28 euroko aurrekontuarekin.



**Lekarozko Txiki-Polita pilotalekuan teilatua moldatu eta bertze berrikuntza lanak egiteko 86.236,92 euroko aurrekontua izanen da eta dirulaguntza eskatu du Udalak.**

## FLASH

### *Turismo informatzaile lanpostua*

Balleko Udalak hiru hilabeterako turismo informatzaile lanpostua betetzeko deialdia egin du. Interesatuak FP-II ikasketa edo baliokidea izanen du eta euskaraz jakin beharko du. Dokumentazioa maiatzaren 25eko 14:00ak baino lehen aurkeztu behar da udal bulegoetan. Aurkezten direnekin, gisa honetako lanetarako lan-poltsa osatuko da. Proba teknikoa ekainaren 3an eginen da, 9:00etan Udaletxean. Egun berean, proba hau zuzendu ondotik, puntuazio altuena lortu duten hautagaiekin elkarrizketa eginen da. Informazio gehiago eskuratzeko 619 829289 telefonora deitu.

### *Amaiurko Borda jauregia saldu dute azkenean*

Lau enkante egin ondotik, bosgarren saiakeran saldu du Espainiako Bame Ministerioak Amaiurko Borda jauregia. Kataluniako elkarte batek 541.000 euroren truke erosi du XVII. mendean eraikitako jauregia. Jabe berriek hotela edo etxebizitzak egitea aztertzen ari dira.

### *Doneztebe eta Baztango akordeoilarien topaketa*

Maiatzaren 29an eginen da Elizondon Doneztebe eta Baztango akordeoilarien topaketa. 11etan kalejira eginen dute Elizondo karriketan barna eta 12:30etan kontzertua eskainiko dute Maurizio Izeta Errebote plazan. Euriarekin, Parrokiako zentroan eginen da kontzertua.

TAXIA
TAXIA Mª Luisa
629 438 705

Kudeaketa Administratiboa
Erdi Mailako Zikloa
ORDUTEGI MOLDATUA GOIZEZ!!
NORENDAKO:
PLAN MALGUA:
SARRERAKO BALDINTZAK:
AURREINSKRIPZIOA:
I.E.S. LEKAROZ BHI ELIZONDO B.H.I.

ArkiLanak SL
ARANTXA CIAURRIZ IRAIZOZ Arkitektoa
JOSEBA CIAURRIZ IRAIZOZ Arkitekto Teknikoa
Tfnoa: 948 58 19 31 e-posta:arantxaci@terra.es
Santiago, 55 ELIZONDO
ETXEBIZITZA PROIEKTUAK
URBANIZAZIO PROIEKTUAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONTSULTAK
LUR NEURKETAK

BAZTAN

# Magnesitas-ek Erdizagan harrobia egiteko asmoarekin segitzen du

## Proiektuaren berri eman dio Junta Generalari eta Belaun Bizirik taldea kontra agertu da

ttipi-ttapa

Magnesitas de Navarra (Magna) enpresak Erdizaga inguruan harrobia irekitzeko asmoarekin segitzen du eta Baztango Junta Generalari esplotazio-planaren berri eman zion maiatzaren 2an. Erdizen egindako zundaketek *«Emaitza nahiko onak»* eman dituztela aipatu zuten eta inguru horretan etorkizunean harrobia irekitzea aztertzen ari direla. 60 edo 70 Hektarea herrilur beharko lituzkete eta 35 lanpostu sortuko omen lirateke. Trukean, Magnak urtean 120.000 euro ordainduko lituzke. Gainera, Erdizen aziendak bazkatzen dituzten abeltzainei eta ehiztariei ere *«bertzelako konpentsazioak ere»* eginen omen dizkiote. Junta Generalak, bi aldiz agertu du harrobiaren kontrako jarrera, baina solasaldietan segitzen du enpresarekin.

Belaun Bizirik taldea, bere aldetik, Erdizagako harrobiaren kontra agertu da berriz ere, eta *«Udalaren jarrera-aldaketa»* salatu du. Talde honen ustez, *«harrobitzarraren aldeko klima soziala eta politikoa sortzeko baldintza egokiak eratu nahian dabiltza. Harrobiak koste sozial eta ekologiko berreskuraezina sortuko lioke Baztani»*. Erdizen prezioa negoziatzen ari ote diren argi eta garbi azaltzea ere eskatu dio Belaun Bizirik taldeak Udalari eta enpresari.





### Mexikoko Baztango Egunak 300 lagun bildu zituen

**Mexikon bizi diren baztandarrak maiatzaren 1ean elkartu ziren Mexikoko Euskal Etxean Baztango Eguna ospatzeko. Juan Mari Castro Urdazubiko kaputxinoak eman zuen mezaren ondotik bazkaldu zuten Juanjo Arrieta oronoztarrak eta bere sukaldari taldeak prestatua. Bazkalondoan, Toño Barberena eta Juantxo Biguriak musika jarri zuten eta denak kantari aritu ziren. Mus txapelketa azkarrean José Antonio Zugarramurdi eta Angel Ponce izan ziren txapeldun.**














# ZURE LAGUNTZARI ESKER, JAKINTSU GARA

*Zure laguntzari esker, Nafarroak 464 milioi euro sartuko ditu Hezkuntzan 2005. urtean*

Hurbilago, erosoago

2004ko errentaren eta ondarearen aitorpena

2005eko maiatzaren 6tik ekainaren 27ra

Zergapekoari erantzuteko telefonoa 901 50 51 52. Internet: www.navarra.es

Nafarroako Gobernua

Nafarroako Ogasuna

ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

# «Xiba» Euskal Joku Topaketan parte hartu du Zugarramurdiko taldeak

## Sei neska eta sei mutil aritu ziren herri kirol ezberdinetan

**Margari eta Koro**

"XIBA" Euskal Herrien arteko II Euskal-joko topaketetan parte hartu du Zugarramurdiko talde batek. Berez Nafarroako erdi-finaletan tokatzen bazitzaion ere, hurbiltasunagatik Iparraldekoan jokatu dute. Maiatzaren 7an Sarako plazan egin ziren frogak eta denetara hamabi herrik parte hartu zuten. Talde bakoitzak 12 jokalari zituen (6 neska eta 6 mutil) eta jokoak hauek izan ziren: harri jasotzea – ingudea – lasto altxatzea – dantza – toka – xiba – zerra – soka-tira – jende zama – txingak – zaku eramatea. Gure herriko jokalariek trebetasun haundirik ez zuten erakutsi, eta seguruenik biharamunean ondorio galantak izanen zituzten, baina hala ere seigarren postuan gelditu ziren. Irabazlea Angeluko taldea izan zen.

### Zugarramurdi-Etxalar-Baztan errepidea

Zugarramurditik abiatu eta bai Etxalarera, bai Baztanera doaien karreteraren egoera kaxkarraren moldaketaz aritu dira joan den astean Nafarroako Parlamentuan. Hiru herrien artean lanak egiteko garestiegi dira, eta horren ezinean gero eta gehiago hondatzen ari denez, EA taldeak proposatu du Nafarroako Karretera Sarean sartzea, horrela Nafar Gobernuaren gain joanen zen mantenua.

### Sutea Antonenbordan

Lar eta ote erretzeko sasoinean gaude eta sute arrixku haundia da. Gan den maiatzaren 2an Antonen-borda ondoan erretzen ari zirenean sua eskapatu zitzaien. Ez zen eremu haundirik hondatu bainan suhiltzaile eta guzti agertu ziren.

### Urdazubiko Salbatoreak gan dira

Herrietako bestei hasiera ematen dioten bestak ailegatu zaizkigu: Urdazubikoak. Salbatore eguna kenduz, gainetakoetan eguraldi pullita izan dugu eta programa ederki betetzen gan da. Gainera aurten berezitasun batzuk bagenitugun: presan kukaña bat emana zen; globo aerostatiko batean airatzeko aukera ere bazegoen, eta baita ere sagardotegi mugikor bat







ARGAZKIAK: KORO IRAZOKI

**Zugarramurdiko taldeak Xiba Euskal Jokoen topaketan parte hartu zuen Saran. Sei mutil eta sei neska aritu ziren herri kirol ezberdinetan, tartean arpanan eta sokatiran.**

## AZKAIN

# Euskal kostaldeko 3. mailako txapeldun izan da errugbi taldea

Saskibaloiaren urteko besta larunbat honetan eginen da

**Angela eta Xamo**

Azkaingo errugbi taldeak hirugarren mailako "Côte Basque Landes" txapelketa irabazi du gan den maiatzaren 8an, Ondres-en, Pomarez elkartearen kontra, 18-13. Aurtengo sasoinaren emaitzak ikusirik, pentsatzen ahal ginuen txapela ekartzen ahal zutela gure herrirat. Gero, partida batean, batez ere finala batean, badakigu gauza ainitz pasatzen ahal direla. Bainan aurten proposatu diguten jokoaren arabera, gure errugbilariek erakutsi gaituzte gauza ederrak etortzekoak direla oraino, eta zertako ez, 1989 urtean bezala, Frantziako txapelketaren bigarren kopa bat...



Argazkia: Angela

### Xarabaitako lotizamendua

**Herriko etxearen bizileku politikak zailtasun batzu topatzen ditu mementu honetan. Lehen bai lehen azpimarratu behar da Xarabaitako lotizamenduaren obrak ari dira aintzinatzen. Badakigu etxeak lurratik hasiko direla ateratzen heldu den urtean. Politika hori segi dezan, herriko etxeak lur berri batzu bilatzen ditu. Duela guti, autetsiek deliberatu zuten Serres auzoan saltzen zen lur puxka eder bat erostea. Bainan prezioak ari dira goititzen, jakinez eragile batek herriko etxeak ofreitzen duen baino diru asko proposatzen dio lur jabeari. Geroztik, jakin dugu autetsiak ez direla denak akort eskaintza goititzeko. Eztabaidatu behar dute beraz, eta eztabaida horren emaitzak baldintzatuko du herriko bizileku politikoaren segida.**

### Saskibaloiaren urteko besta

Azkaingo saskibaloi elkarteak bere urteroko besta antolatzen du heldu den maiatzaren 21ean. Egun horrek azpimarratu nahi ditu urtean izandako emaitza guziak, gazte eta helduen mail desberdinetan, baita elkartearen bizia ere. Eguna hasiko da elkartearen biltzar nagusiarekin, goizeko 11etan. Egunean zehar, partida batzu proposatuak izanen dira Kiroletako ezker paletan, helduentzat eta ttikientzat. Besta hori bukatzeko, jokalari, laguntzaile eta nahi dutenek elgarretaratzeko parada izanen dute afari batean. Partehartzeko, deitzen ahal duzue zenbaki huntara: 0559540912.

## FLASH

### Pilota

Sebastien Gonzalez, herriko pilotariak, Espainiako banakako finalerdiak lortu ditu, Xala irabaziz 22-21, maiatzaren 7an. Emaitza horrek erakusten du aintzinamendu ainitz egiten dituela Sebastienek. Espainian aritzen diren pilotari hoberen azken laukian sartzeko azkenean. Zernahi gisaz, ez dugu sobera fite txapelari pentsatu behar. Sebastienek bere finalerdia jokatuko du heldu den maiatzaren 23an, Aimar Olaizolaren kontra. Eta irabazten baldin badu...

### Arcachon

Herriko opor zentroak ateraldia antolatu du haur eta gazteentzat "Bassin d'Arcachon" leku famatuan, heldu den ekainaren 20tik 24a arte. Egitarauan: egun osoa Aqualandureko lekuan, urpeko ibilaldiak, VTT, Teich leku ornitologikoaren bisita, Pilat haremendia... Prezioa: 100 euro. Izenak eman behar dira herriko etxerat maiatzeren 27kotz. Xehetasunak zenbaki huntarat: Pantxo Larroquet 0614973604.











SARA

# Hamar taldek parte hartu zuten Herri Urrats bezperako «Xiba» eskual jokoetan

Beti Gazte elkarteak bazkaria antolatu du maiatzaren 26rako

Laetitia, Sandrine eta Krispin

Joan den agerkarian aipatu ginuen bezala, Herri Urrats bezperan, Sarako plazan antolatuak izan ziren eskual jokoek arrakasta izan zuten. Hain zuzen ere, hamar bat taldek parte hartu zuten topagune horretan. Azkenean, Angeluko jokolariek irabazi zuten. Jende ainitz hurbildu zen arratsaldean, bai jokolariei begira, bai ostatuan ere. Lehiaketa bururatu eta, indarren berreskuratzeko aukera izan zuten denek polikiroldegiaren ondoan antolatua izan zen afarian.

Ondotik kontzertua iragan zen polikiroldegian. 850 bat jende ibili zen kontzertuan eta giro ona eman zuten etorriak ziren musikalariak.



**Beti Gazte adinekoen elkarteak bazkaria antolatu du maiatzaren 26rako. Aurten ere hainbat saratar biltzea espero dute.**

### *Beti Gaztek bazkaria*

Beti Gazte elkarteak bazkari bat antolatzen du maiatzaren 26an eguerdi eta erditan. Bazkariaren prezioa 20 eurokoa da karta dutenentzat eta 26 euro bertzeentzat. Izen emaiteak, maiatzaren 23a aintzin egin behar dira ondoko zenbakietarat: Jeannot Etcheverrigaray: 05 59542134; Yvonne Aspirot: 05 59542700; Anita Suhit: 05 59542021.

### *Merkatua Saran uda honetan*

Lehen aldikotz aurten, uztailean eta abuztuan, merkatu bat antolatua izanen da Sarako plazan ortzegunero goizeko 9etatik arratsaldeko 1ak arte. Nahi baduzue parte hartu merkatu hortan zuen tokia erreserbatzen ahalko duzue telefono hortara deituz: 0559542014 edo fax bat bidaliz: 05 59542915 zenbakira (turismo bulegoa). Jakin ezazue tokia urririk izanen dela eta horregatik izenak ahal bezain fite eman beharko dira.

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

SENPERE

# Frantziako estatuak ez dio laguntzarik emanen herriko aisialdi gunearen proiektuari

85.000 lagun hurbildu ziren aintziran egin 22garren Herri Urratserat

Franck DOLOSOR

Baionako su-prefeturak jakinarazi du Frantziako gobernamenduak ez duela laguntzarik emanen Herriko Etxeak egin nahi duen aisialdi gunearen proiektuarentzat. Andere auzapezak berri hori ezagutzerat eman zuen Herri Urrats egunean. Hil herri ondoan eginen den egoitza berri hunek herriko Zaldubi ikastola aterpetuko du ikasturte osoan eta aisialdi gunea udan. Christine Bessonart-ek galde batekin erantzun dio ezezkoari. Dirurik ez ote dago egiazki, edo lerro ofizialetatik atera diren Herriko Etxeak zigortu nahi dira? Azken urteetan, herriko etxeak hartu dituen erabaki zonbait Paueko auzitegi administratiboan salatu dituzte Baionako su-prefetak eta Paueko prefetak. Hazi transgenikoen kontra hartu zen erabakia edo euskal departamendu baten aldeko hautetsien elkarteari eman zitzaion diru laguntza ez zuten begi onez ikusi Parisko gobernamenduaren ordezkariek.



**Urtero bezala, milaka jende bildu zen aitzira inguruan Herri Urrats karietara, Iparraldeko ikastolak sustengatzeko. Besta haundiaren irabaziekin bigarren hezkuntzako bi ikastegi berri irekiko dira.**

### *Ikastolaren gaubeila ortziralean*

Gau Beila ospatuko du ikastolak maiatzaren 20an Ibarrungo Inharrea baserrian. Ikasleen olerkiez gain, Xalbador eta Ihidoi, Pil-Pil taldea, Kattalin Indaburu, Thierry Biscarri eta txalapartariak entzun ahal izanen dira.

## 85.000 lagun bildu zituen Herri Urratsek

Seaskaren arabera, 85.000 lagun hurbildu ziren Senpererat maiatzaren 8an Herri Urrats Iparraldeko ikastolen aldeko bestan parte hartzeko. Seaskaren ustez, elkartasun hori euskarazko irakaskuntzari ematen zaizkion trabak baino indartsuagoa da. Besta haundiaren irabaziekin bigarren hezkuntzako bi ikastegi berri eraikiko dira Ziburun eta Larzabalen. Iaz, 310 000 euro bildu ziren Herri Urratsen.

Besta haundian ez zen arazo haundiegirik gertatu. Senpereko su-hiltzaileek alkohola gehiegi edan zuten lagun zenbait bertzerik ez zuten lagundu behar izan. Aintziraren garbiketa aitaren batean egin zuten euskaltzaleek Herri Urratsen biharamunean. Milaka bisitariek lurrean "ahantzi" zituzten zikinak berehala bildu zituzten eta bestaren biharamunean lakuak betiko itxura hartu zuen.






KULTURA

# Institutuetako musika ikasleek kontzertuak emanen dituzte

## Lekaroz, Bera, Doneztebe, Leitza eta Altsasun izanen dira egunotan


ARTXIBOKOA
**Leitzako pilotalekuan maiatzaren 27an eskainiko dute emanaldia.**

ttipi-ttapa

Urtero bezala, aurtengoan ere Lekaroz, Bera, Doneztebe, Leitza eta Altsasuko institutuetako 500 ikasle bost herri hauetan bilduko dira musika arloan ikasturtean zehar ikasi eta landutakoa eskaintzeko asmotan. Honela, ortziral honetan, maiatzaren 20an, Lekarozko institutuko kiroldegoan eskainiko dute emanaldia, 17:30etan. Heldu den asteartean, maiatzaren 24an, Berako Eztegara pilotalekuan izanen da kontzertua ordu berean. Maiatzaren 25ean, asteazkena, Doneztebeko pilotalekuan izanen da musika emanaldia, hau ere 17:30etan. Maiatzaren 27an, ostirala, Leitzako pilotalekuan izanen da kontzertua, gainerako emanaldien ordu berean eta, azkenik, Altsasuko pilotalekuan maiatzaren 30ean, astelehenean eginen dute kontzertua.

Kantutegiari dagokionez, mota desberdinetako abestiak entzuteko aukera izanen dela jakinarazi dute antolatzaileek: mutxikoak, euskal abestiak, Irlandako folka, Hego Afrikako musika, rock estiloko abestiak eta ikasleek asmatutako abesti bat ere izanen da entzungai.

Emanaldiak, «Buhamiak» kantu herrikoiarekin hasiko dira. Ondotik, Blus Brothers-en «Everybody needs somebody to love», Manu Chaoren «El desaparecido», Imanolen «Koplak», Sowetoren «Imbube», herri musika irlandarraren «Whiskey in the jar», Asier Jauregiren «Euritan», Ken 7ren «Ilargia», Red Hot Chilli Peppersen «Otherside», Oreka TXren «Keinuka ilargiari» eta The Buggles taldearen «Video Killed The Radio Star» kantuak eskainiko dituzte institutuetako musika ikasle hauek.



**Pantaleon**
**TXOPERENA AGARA**
**Lesakan hil zen 2005eko apirilaren 30ean, 81 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.**

*Zuk hainbertze maite eta maitarazi zenigun Ama Lurrak har dezala Pantaleon bere baitan: Panta, aita, aitatxi gurean izanen zara betiko.*

**GOIAN BEGO**
**LESAKAN, 2005eko maiatzaren 2an**



**Mª Rosario**
**GOGORZA BILLABONA**
**Ziburun hil zen, 2005eko apirilaren 29an.**

*Sobera abudo joan bazinen ere*
*beti gogoan eta bihotzean*
*izanen zaitugu.*

**BERAKO FAMILIA**

**Santiago**
**ETXEPETELEKU**
**PIKABEA**
**I. URTEURRENA**
**(1912-VII-25 / 2004-V-07)**



*Jada urtea begiak itxi*
*ta lo gelditu zinela*
*harrez geroztik gure harremana*
*ez da izan beti bezela*
*ta nahiz ta jakin zure musu bat*
*askoz nahiago nukela*
*oroitzapenen bidez sentitu*
*dezaket zure epela*
*aitatxi jakin zuri eskerrak*
*ikasi egin dutela*
*maitasunaren mugarik eza*
*benetan egia dela*
*ikasi baitut modu batean*
*edo bertzean, bertzela*
*gure artean zaudela eta*
*beti egonen zarela.*

**ZURE FAMILIA**



# EZKONTZAK

**Frédéric Blanc** eta **Cécile Sophie Sourie**, Senperekoak, martxoaren 19an.

**Alain Marcel Barrere** eta **Véronique Soubielle**, Senperekoak, apirilaren 30ean.

**Xabier Portu Telletxea** eta **Itziar Barinaga-rementeria Zabaleta**, Lesaka eta Leitzakoa, apirilaren 23an.

**Diego Macaya del Castillo** eta **Maider Aldaia Buldain**, Iruña eta Leitzakoa, apirilaren 2an.

**Patxi Iturria Iparragirre** eta **Miren Josune Otxandorena Andiarena**, Arantza eta Sunbillakoa Donamarian, maiatzaren 7an.

**Jose Maria Antsizar Iriarte** eta **Ana Maria Irurueta Mitxelena**, Doneztebe eta Almandozkoa, apirilaren 23an.

**Juan Miguel Migeltorena Etxenike** eta **Maria Elena Gaskue jaunarena**, Berroeta eta Burlatakoa, apirilaren 30ean.

**Martin Antonio Arriada Mitxelena** eta **Estibaliz Lizasoain Braña**, Arizkungoa eta Elizondokoa, maiatzaren 7an.

**Pedro Telletxea Erasun** eta **Angela Irisarri Elizagoien**, Beintza-Labaien eta Etxalarkoa, maiatzaren 7an.

**Jon Agesta Almandoz** eta **Miren Hernandorena Ibarra**, Arantza eta Sunbillakoa, maiatzaren 7an.

# SORTZEAK

**Keyann Jacques Paul Binot**, Senperekoa, urtarrilaren 31n.

**Andoni Gastellou**, Senperekoa, otsailaren 4an.

**Elaia Agerre**, Senperekoa, otsailaren 10ean.

**Iban Etxeberria**, Senperekoa, otsailaren 13an.

**Maitane Etxeberria**, Senperekoa, otsailaren 13an.

**Iñaki Larzabal**, Senperekoa, otsailaren 14an.

**Intza Ibarburu**, Senperekoa, otsailaren 22an.

**Zia Caudal**, Senperekoa, otsailaren 25ean.

**Gilen Agergarai**, Senperekoa, otsailaren 28an.

**Kemen Alain Fernand Lamothe**, Senperekoa, martxoaren 2an.

**Maiana Clémence Martin**, Senperekoa, martxoaren 8an.

**Illan Fuma Lay**, Senperekoa, apirilaren 14an.

**Klara Peyreblanque**, Senperekoa, apirilaren 20an.

**Laia Peyreblanque**, Senperekoa, apirilaren 20an.

**Gabriel Ambroise**, Senperekoa, apirilaren 22an.

**Larraitz Lukanbio Lucas**, Arantzakoa, apirilaren 10ean.

**Gaizka Zulaika Iturria**, Arantzakoa, apirilaren 14an.

**Amaia De Rueda Berasaluze**, Arantzakoa, apirilaren 11n.

**Maialen Baraibar Arraiago**, Aresokoa, apirilaren 10ean.

**Aroa Arregi Barriola**, Leitzakoa, apirilaren 19an.

**Aitor Pagadizabal Igartzabal**, Lesakakoa, apirilaren 26an.

**Carlos Alberto Vides Alves**, Elizondokoa, apirilaren 21ean.

**Jon Verde Mugiro**, Elizondokoa, apirilaren 25ean.

**Patricia Del Campo Pellicer**, Elizondokoa, apirilaren 27an.

**Iragi Garbalena Osinaga**, Lekarozkoa, apirilaren 28an.

**Ibai Iturregi Zelaieta**, Elizondokoa, apirilaren 30ean.

**Larraitz Migelena Valverde**, Igantzikoa, apirilaren 29an.

**Alicia Zunda**, Sarakoa, apirilaren 30ean.

**Eneko Zubieta Gonzalez**, Etxalarkoa, apirilaren 29an.

**Eneit Bertiz Apezetxea**, Sunbillakoa, otsailaren 10ean.

**Nahiane Jorajuria Apezetxea**, Sunbillakoa, otsailaren 17an.



# HERIOTZAK

**François Borthaire**, Senperekoa, urtarrilaren 13an.

**Joseph Martinez**, Senperekoa, urtarrilaren 13an.

**Jean Duhalde**, Senperekoa, urtarrilaren 18an.

**Georges Jacques Jean Darlet**, Senperekoa, otsailaren 4an.

**Joseph Jean Etxenagusi**, Senperekoa, otsailaren 13an.

**François Fagoaga**, Senperekoa, otsailaren 21ean.

**Iñaki Bastid Larzabal**, Senperekoa, otsailaren 25ean.

**Marie Rose Léontine Simonne Leleu** (ezkondua **Provost**), Senperekoa, martxoaren 1ean.

**Christian Louis Fernand Desbait**, Senperekoa, martxoaren 10ean.

**Mauricette Hélène Albertine Lemaresquier** (ezkondua **Slaës**), Senperekoa, martxoaren 18an.

**Robert Edouart Lorant**, Senperekoa, martxoaren 22an.

**Délphine Agerre** (ezkondua **Bereau**), Senperekoa, martxoaren 28an.

**Carmen Irigoien Etxabide**, Lesakakoa, apirilaren 29an, 83 urte.

**Pantaleon Txoperena Agara**, Lesakakoa, apirilaren 30ean, 81 urte.

**Jose Aiestaran Tapia**, Lesakakoa, maiatzaren 1ean, 72 urte.

**Pedro Maria Loperena Setuain**, Elizondon, maiatzaren 2an, 83 urte.

**Anisia Usabarrena Zelaieta**, Elizondokoa, maiatzaren 2an, 86 urte.

**Milagros Mutuberria Oskoz**, Arantzakoa, maiatzaren 2an, 49 urte.

**Cipriano Rekarte Elizetxe**, Arizkungoa, maiatzaren 4an, 83 urte.

**Adolfo Barberena Aleman**, Iruritakoa, maiatzaren 5ean, 96 urte.

**Izaskun Arraras Usabiaga**, Leitzakoa, maiatzaren 6an, 44 urte.

**Marianne Christine Errandonea**, Sarakoa, 95 urte.

**Marcel Telletxea**, Sarakoa, 70 urte.



Argazkia: Maitane APEZETXEA

**Jon APEZETXEA** *Goizuetako pilotaria*

## DATUAK...

- **Hamazazpi urte egin berritan pilotan 30 txapel irabazi ditu Jon Apezetxea goizuetarrak. Azkenekoa, GRAVN txapelketa izan da, Diaz de Ultzurrunekin batera Bizkaiko bikotearen kontra.**
- **Deus sinaturik ez baldin badu ere, astean behin ASPE enpresako teknikariekin entrenatzen du Donostian.**
- **Elgetako lau terdiko txapelketa irabazia du eta noizbait profesionaletan jokatzeko ametsa beteko balu, «manomanista baino gehiago, lau terdiko txapela irabaztea» gustatuko litzaioke.**

# «Profesionaletan debutatu eta lau terdiko txapela irabaztearekin amets egiten dut»

Aitor AROTZENA

Jon Apezetxea goizuetarrak 17 urte bete zituen apirilaren 12an. Aste pare bat beranduago, pilotan jokatuz eskuratu duen hogeita hamargarren txapela bururatu zuen. Irurtzungo Diaz de Ultzurrun gibelean lagun zuela, GRAVN txapelketa garrantzitsuaren finala irabazi zuten Bizkaiaren kontra: *«Garaipen nahiko erraza izan zen, 22-1, atzean lagun ona nuen eta!»*. 30. txapela buruan freskko baldin badu ere, lehenbizikoa ez du hain garbi goizuetarrak: *«Ez dakit Ordizian edo Errenterian izan zen, 8-9 urterekin»*. Geroztik irabazi dituenen artean, GRAVNeko azken honetaz gain, Elgetako lau terdiko txapelketa gordetzen du Apezetxeak bereziki gogoan. Hain zuzen, lau terdiaren barrenean moldatzen da hobekien aurrelari fin hau. *«Gustoren lau terdian aritzen naiz* –dio– *eta binaka ere dexente moldatzen naiz, orain mano-mano frontoi osoan aritzea gehiago kostatzen zait. Indar gutxi xamar daukat oraindik eta lau terdian teknikaren eta manejuaren bitartez moldatzen naiz. Tantua bukatzeko erraztasuna dut eta momentu honetan konfidantzarekin nago gainera. Kantxa osoan, aldiz, indar gehiago behar da. Donostian gimnasio batean ari naiz lanean hankak indartzeko eta gorputza egiteko»*.

**«Aimar asko gustatzen zait, pilotari konpletoa da. Baina Asierek duen garrote berezia ere izugarri gustatzen zait, beste inork ez dauka hori»**

### Aspe enpresako teknikariekin entrenatzen du astean behin

Profesionalen artean miresten dituen pilotariei buruz galdetzerakoan ez du urrun begiratzen Apezetxeak: *«Herritarrak, hi! Batez ere, Aimar asko gustatzen zait, beti berekin ibiltzen naiz eta pilotari konpletoa da. Baina Asierrek daukan garrote berezia ere izugarri gustatzen zait, beste inork ez du hori»*. Profesionaletan ari direnaz gain, bere adintsuko pilotari ugari daude Goizueta bezalako herri txiki batean. Zergatik ote den galdetutakoan Jonek erdi txantxetan zera dio: *«Jendeak esaten dik urarena ote den!»*. Serioxeagoa hasten denean aldiz, *«hiru frontoi zeudek herrian eta ume denak beti hor sartuak daude. Futbol-ekiporik ez dago eta!»*. Beretzat profesionaletan debutatzea oraindik ametsa baldin bada ere, dagoeneko Asperekin entrenatzen du astean behin. *«Deus firmatu gabe, beraiekin entrenatzea ongi datorkit, pilotari egiteko. Nere gisara ere asko entrenatzen dut herrian, Narbarte, Loiarte, Aimar, Asierrekin...»*. Final erdietan sartu den buruz buruko txapelketan ez du faborito argirik: *«Aimar joko nuke faborito, momentu politean dago, baina Irujo ere kontuan hartu behar da!»*.

MENDIA

# Igande honetan eginen da Berako VII. Mendi Itzulia

Agerra Mendi Taldeak antolatuta, 30 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute partehartzaileek

A.A.

Berako Agerra Mendi Taldeak, Udalaren eta Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuaren laguntzarekin zazpigarren aldiz antolatutako Berako Mendi Itzulia igande honetan maiatzaren 22an eginen da. Itzuli honek 30 kilometroko ibilbidea izanen du, Jabier Zubieta, Loro Pikabea eta Jabier Telletxea antolatzaileek jakinarazi zutenez.

Agerra elkartetik Larretagaina edo Santa Barbarara igoko dira, 400 metrora. Handik, Idoia, Labiaga (618 metro), Lizuniaga, Kondendiaga, Larun (900 metro), Iasola Zaharra, Landagaita, Usategieta, Ibardin, Azkenbaita, Mandale (573 metro) eta Postan barna, berriz ere Agerrara itzuliko dira. Ibilbidea xamurragoa egiteko aukera eskaintzen dute antolatzaileek, Idoiatik zuzenean Lizuniagara joz, Labiagara igo gabe.

Ibilaldian parte hartzeko 6 euro ordaindu beharko dira. Izen ematea Agerra mendi taldearen egoitzan eginen da 6etatik 7:50ak arte. Ibilaldiaren irteera goizeko 7etatik 8etara izanen da. Antolatzaileek gutxienez 6 ordu eta gehienez 8 ordu eta 20 minutuko tartea utzi dute ibilbidea osatzeko.






Argazkia: Jon ALTZUGUREN

**Agerra Mendi taldeko Jabier Zubieta, Loro Pikabea eta Jabier Telletxeak eman zuten 30 kilometroko ibilbidearen berri.**

# Baztango XII. Itzulia Iruritan hasi eta akituko da maiatzaren 29an

33 kilometro terdiko ibilbidea osatuko da

Maiatzaren 29an, Baztango Mendigoizaleak taldeak hamabigarren aldiz antolatutako Baztango Itzulia eginen da. Iruritan abiatu eta Iruritan akituko da 33 kilometro terdiko ibilbidea. Tartean, Pellonea (385 m), Bailei (590 m), Dendai (435 m), Belaun (595 m), Trepa (1.060 m), Negusaroi (780 m), Mizpira erreka (515 m), Dolameaka (805 m), Zokoa erreka (740 m), Pikuda (1.125 m), Aizkoa (980 m) eta Basaburutik (900 m) igaroko dira.

Argibide gehiagorako Baztango Mendigoizaleak taldeko 680 456867 telefonora deitu behar da, 19:00etatik 22:00etara.




Utzitako argazkia

**Baztango Mendigoizaleek antolatutako Itzulia iragartzen duen kartela. Aurten hamabigarren edizioa beteko du.**

# AGENDA egunez egun

## KONTZERTUAK

### ELIZONDO

**Maiatzaren 20an** Wichita taldea Lur diskotekan, 23:00etan.
**Maiatzaren 21ean** Koma eta Eko4 taldeak Lur diskotekan, 0:00etan.
**Maiatzaren 27an** «The Birras» taldea Lur diskotekan, 0:00etan.
**Maiatzaren 28an** «Garraxi» taldea Lur diskotekan, 0:00etan.

### LESAKA

**Maiatzaren 20an** akordeoi bandaren kontzertua, Salbador Madariagak zuzendua, 20:00etan Alhondigan.

## ERAKUSKETAK

### BERA

**Maiatzaren 28tik ekainaren 5era** Berako Pintura Taldeak Kultur Etxeko Erakusketa Gelan erakusketa berria ikusgai jarriko du urtean zehar egindako lanak erakusteko. Astelehenetik igandera arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara zabalik.

## SOLASALDIAK

### BERA

**Maiatzaren 20an** Espidobaita Elkarteak hitzaldia antolatu du Berako Kultur Batzordearen laguntzarekin. , Patxi Gorraiz Kultur Etxean izanen da eta 20:30etatik aintzinerat "Itoiz gaur egun" gaia jorratuko du.

## IPUINAK-KANTUAK

### BERA

**Maiatzaren 25ean** Cantos y Cuentos Taldea izanen da liburutegian "Dulcinea la pasión de Don Quijote" ikuskizun narratibo eta musikala eskaintzen 19:00etatik aurrera.

## TELEBISTAKO TXOKOA



ORTZIRALEAN TTIPI-TTAPA TELEBISTAN

# Jagoba Manterola argazkilariarekin solasean

Ezagutzea merezi duen pertsona horietakoa da Jagoba Manterola argazkilaria. Iturenen sortu zen, berak dioen bezala "duela urte batzuk". Aski gazterik izan zuen harremana argazkilaritzarekin. Aitatxi atabalaria zuen eta erromerietako giroa bere kamara zaharraren objektiboarekin biltzen omen zuen. Hamar urterekin argazki-kamara bat eskatu zion Olentzerori, eta harekin ateri zituen Jagobak bere lehenbiziko argazkiak. Harek bulkatuta edo, bere bizitza profesionala hortik bideratu zuen. Bartzelonan egin zituen argazkilari ikasketak. Orduztik hainbat lekutan ibili da lanean. Gaur-egun GARA eta BERRIA egunkarietan argitaratzen dituzte bere argazkiak baina esperientzia aunitz, eta hagitz desberdinak, izan ditu bere ibilbide luzean. Gerrako argazkilari izatea zer den, manifestazio iskanbilatsuetan argazkiak ateratzea zer den, Guardia Zibilarekin izan dituen gora-beherak... horiek eta kontu gehiago kontatuko dizkio ortziral honetan Joseba Olagarai lankideari.

Kasik bizitza osoa argazkiak ateratzen pasatzea zer den ikusiko dugu, profesional haundi baten eskutik. Ez galdu, ortziral honetan, Ttipi-Ttapa Telebistan eskainiko dugun erreportaia.

## DISKAK



*«Xurdin ipuinen munduan»*

**XURDIN**

*RUN DOWN MUSIC, 2005*

Xurdin eta bere lagunak haurren entretenimendurako bortz pertsonaiek osatutako musika taldea da. Musikaz gain, talde honek antzerkia, entretenimendua eta jokoak proposatzen ditu, edozein herri eta guneetan. Orain, Xurdin eta bere lagunek ipotxen munduan izandako abentura zoragarriak kontatzen dituen CD berria atera dute, «Xurdin ipotxen munduan». Diska honetan Xurdinen lagun guztiak aurkituko dituzu: Zirri, Borro, Dofasol Jauna, Xurdin eta Haizedenek abestutako 10 kanta entzuteko eta dantzatzeko aukera duzu hementxe. Eta bideo bat ere!!! Zortziko Molonen bideoa ikusi ahal izanen duzu zure ordenagailuan, ipotxak bezala dantza egiteko. Musikarekin batera, «Xurdin kobazuloan galdurik» antzezlanarekin herriz herri eta auzoz auzo dabil Xurdinen taldea.

## BASERRIA

Datu iturria: Nafarroako Gobernua
(Apirilaren 29tik maiatzaren 6ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 27,50 € (=)

**Zerri gizena**
0,975 € kiloa (+0,005)

**Zerramak:**
0,400 € Kg/bizirik. (-0,020)

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3, 54 (-0,03)
**1.koa** 3,34 (-0,03)
**2.koa** 3,21 (-0,03)
**Urruxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,64 (-0,03)
**1.koa** 3,46 (-0,03)
**2.koa** 3,28 (-0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
urruxak 228,00 (=)
idixkoak 252,00 (+6,00)

**Aretze nabarrak:**
urruxak 180,00 (=)
idixkoak 206,00 (=)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 2,98/3,04
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 5,70 / 5,90
8-10 kilokoak: 4,30 / 4,80

## JAKIN BEHARREKOAK

# «Light» produktuek ez dutela argaltzen oroitarazi du Irachek

### Kontsumitzaile Elkarteak lege araurik ez dagoela salatu du

Egun hauetan, udako oporrei begira, pertsona aunitzek erregimena egitea eta urtean irabazi dituzten soberako kiloak galtzea erabakitzen dute. Fabrikanteak horren jakitun dira, baita urte osoan milaka kontsumitzaileek praktikatzen duten «gorputzaren kultoaz» ere. Horregatik, merkatuan sartu dituzte hainbat elikadura produkturen «light» eratorriak: margarinak, patata prexituak, freskagarriak, gozokiak... «Light» produktuak, mota bereko elikagai originalarekin konparatuz kilokaloria guttiago dituzten produktuak dira. Energia-murrizketa hori normalki, koipea edo azukrea, edo biak batera murriztean lortzen da; aditiboak edo zapore bera ematen duten bertze ordezkoak gehituta. «Light» elikagaiak baliagarriak izan daitezke bere dietaren koipe kopurua kontrolatu behar dutenentzat. Baina produktu hauei buruz kontsumitzaileak hartzen duen informazioa ez da beti argia izaten. Produktu hauentzako araudi berezirik ez dagoenez, «light» edo «arin» izendapena ematen zaie, egitan horrela ez diren produktuei. Gainera, kontsumitzaileak bertze gisako produktuekin nahasten ahal ditu, "integralekin" adibidez. Hauek, fibra, bitamina edo mineral gehiago dituzten produktuak dira, baina ez kaloria guttiagokoak. Produktu hauei buruzko informazio faltaren eraginez, kontsumitzaile aunitzek kontrola galtzen dute eta soberako kontsumoa gertatzen da: Adibidez, bi txokolate pastilla jan ordez, «light» txokolateko sei pastilla jaten dituzte. Ez dugu nahasi behar: «light» elikagaiek ez dute argaltzen eta ez dira pisua galtzeko bermea; kasurik onenean, guttiago loditzen dute.

Irache kontsumitzaile elkartetik, «light» produktu bat erosi aitzinetik etiketa irakurri eta dituen kilokaloria kopuruaz jabetzea aholkatzen dute.



ARTXIBOA

**«Light» elikagaiek ez dute argaltzen. Kasurik onenean, guttiago loditzen dute.**

## LIBURUAK




*Maitea*

**Toni MORRISON**
**(Itz. Anton Garitano)**

*ALBERDANIA, 2005*

Toni Morrison idazlearen «Maitea» liburua itzuli du Anton Garitanok. Morrison 1931n jaio zen AEBtako Ohio estatuan, eta ezinhobe deskribatu zituen garai hartako komunitate afroamerikarren, eta batez ere, emakumezko afroamerikarren bizipenak. Morrisonen istorioak arraza, sexu eta klase sozialen arteko borrokaren ispilu errealistak dira, baina horrekin batera, afroamerikarren mundu ikuskerarekin bat eginez, fantasia eta elementu mitikoak ageri dira protagonisten patuarekin jolasean. «Maitea» izeneko nobela honetan, protagonistak hildako haur baten mendean daude, eta hark bultzatuta, bi anaia etxetik ihesi doaz, ama eta alaba etxean bakarrik utzita. Morrisonen idazkera berezia da, eta nobela hau zatika dago idatzia. Hain zuzen, batek baino gehiagok musika beltzaren eragina ikusi du Morrison-en estiloan, blues, jazz eta kanta espiritualen jarioa nabarituz.

## AGENDA egunez egun

### BESTAK

**ALMANDOZ**

**Maiatzaren 25etik 29ra.** Korpus bestak. Xehetasunak 20. orrian.

### MENDI ATERALDIAK

**BAZTAN**

**Maiatzaren 29an** Baztango XII. Ibilaldia antolatu du Baztango Mendigoizaleak taldeak. Xehetasunak 33. orrian.

**BERA**

**Maiatzaren 22an** Berako VII. Mendi Itzulia antolatu du Agerra Mendi Taldeak. Xehetasunak 33. orrian.

**SUNBILLA**

**Maiatzaren 29an** Azkarate Balerdira joanen dira, Ulibeltzak mendi taldeakoak goizeko 7:00etan abiatuta.

### ANTZERKIA

**IRUÑEA**

**Maiatzaren 20an** Macrea Clarke irlandarraren «Autobus de paz y humor» umore ikuskizuna 20:30etan Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean.

**DONAMARIA**

**Maiatzaren 22an** Panta Rhei Producciones taldearen «Txaribari» euskarazko antzezlana ikusgai frontoian, 17:30etan, Udaberriko Biraren barnean.

**URDAZUBI**

**Maiatzaren 22an** La Banda taldearen «La Banda» antzezlana ikusgai 12:30etan frontoian, Udaberriko Biraren barnean.

**LESAKA**

**Maiatzaren 28an** «Bazen behin zirkoa» haurrendako antzezlana 11:30etan Kasinoan. Antzerkiaren ondotik zirko tailerra izanen da konbentu ondoko zelaian. Antolatzailea: Arrano Elkartea. Laguntzailea: Lesakako Udala.

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

# MERKATU TTIKIA

00-34 948 63 54 58

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak

**ADOS**
• ELIZONDO. -2. eskuko pisuak salgai. -Elizondo berriko pisuak salgai. -1.100 m² dituen baserri etxea salgai.
• DONEZTEBE. -Etxebizitza berria eta 2. eskuko pisuak salgai. -Lokal komertzial pare bat salgai eta errentan emateko.
• BERA. -Pisu pare bat salgai. -Terrenoak erosten dira.
• LESAKA. -Erreformatzeko dagoen baserria lur eremuarekin salgai. -Sarbideko pisua dagoen pisu ederra salgai.
• BAZTAN. -Etxebizitza eta 7 apartamentu salgai.
BAZTAN-BIDASOAN baserri, borda, etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai.
948 451 841 / 948580705
www.ados-inmobiliaria.com

## ETXEBIZITZAK
### 101 Saldu

**LEITZA.** 180 m²ko hiru solairu dituen baserria salgai, 62.000 m²ko lur eremuarekin. ☎ 600 007185 (goiz, eguerdi eta iluntzean).

**BERA.** Pisu bat salgai Legia karrikan. Egoera onean. ☎ 943 553790-943 009172.

## ETXEBIZITZAK
### 103 Errentan eman

**ZARAUTZ.** Etxe bat errentan ematen da udara, astebukaerak, zubiak... pasatzeko. Hondartzatik gertu. ☎ 685 718454.

## ETXEBIZITZAK
### 104 Errentan hartu

**LESAKA.** Pisua errentan hartuko nuke. ☎617298888.

**BERA.** Pisua errentan hartuko nuke, ahal bada ttikia. ☎ 667 492616.

## ETXEBIZITZAK
### 105 Etxe konpartituak

**BERA.** Pisukide bat bilatzen dut. ☎ 669 422122.

## GARAJEAK/LOKALAK
### 107 Saldu

**LESAKA.** 65 m²ko lokala salgai. ☎ 627 763163.

**LESAKA.** Garaje komertziala saldu edo errentan emanen nuke. Albistur 55-F. ☎ 666 408849 (gauez).

**ELIZONDO.** Herrierdian bajera edo lokal komertziala salgai. Almazenerako ere balio du. Argia eta urarekin. ☎ 636 858850.

**BULDAIN INMOBILIARIA**
**LEITZAN**
Arakindegia jatetxe parean 3 piso berri salgai. 4 logela, sukaldea, despensa, egongela, garajea eta igogailua.
☎ 948 510 334 ...

## GARAJEAK/LOKALAK
### 109 Errentan eman

**BERA.** Garajea errentan ematen da. Berako Posta etxe ondoan, behean. ☎ 948 630881 (iluntzetan).

**LEITZA.** Taberna traspasatzen da. Sukalde berritua, terraza eta MINP. Erraztasunak ematen dira. ☎ 699 361194.

## LURRAK/ORUBEAK
### 112 Salgai

**LESAKA.** Nabaz auzoan 7.400 m²ko lur-eremua salgai, bi etxe egiteko aukerarekin. ☎ 618 962598.

**LEITZA.** Basakabi ondoan lur eremua salgai. Sarbide onarekin. ☎ 699 361194.

## LURRAK/ORUBEAK
### 113 Erosi

**Terrenoak** erosten dira. ☎ 690 621836.

**Baztan-Bidasoa** inguruan lurra erosiko nuke etxea egiteko. ☎ 658 744082.

## LANA
### 301 Eskariak

**Emakumea** eskaintzen da haurrak eta zaharrak zaintzeko, edo sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko. ☎ 666 381218.

**Bi mutil gazte** euskaldunek lan eginen lukete udan mendian edo harginTzan. ☎ 655 709553 edo 667 241397.

**ADOS BAZTAN ZERBITZU ANITZAK**
• IGELTSEROA
• ZURGINA
• FONTANEROA
• ELEKTRIZISTA
• PINTOREA
Behar duzun gremioen koordinazio guztia daukagu.
ELIZONDO • Santiago 47 • 948 580705
DONEZTEBE • Santa Luzia Plaza Juantorena etxea • 948 451841

**YUNNAN**
Txinako Medikuntza Tradizionaleko Zentroa
948 07 82 59

**ARANTZA Zurgindegia**
Ostiz auzoa 948 634 ...
ARANTZA

**LEITZALDEA.** C gida baimenarekin mutila eskaintzen da lanerako. ☎ 626 390856.

**Pertsona bat** eskaintzen da zurgindegian, tailerrean edo obretan lan egiteko. 5 urteko esperientziarekin. ☎ 637 289103.

**Furgonetarekin porteak** egiten dira. ☎ 637 289103.

**Emakume** euskaldun batek lan eginen luke edozein lanetan, interna moduan edo orduka. Esperientziaduna. ☎ 635 204339 (19:00etatik 21:00etara).

**Furgonetarekin porteak** egiten dira, partikular eta enpresendako. Altzariak, aziendak... ☎ 667 492616.

## LANA
### 302 Eskaintzak

**BERA.** Jatetxe batek zerbitzariak behar ditu asteburuko (ortzirala, larunbata,

**Lan bila zabiltza?**

**LAN ESKAINTZA**
OSASUNBIDEA
Bete behar dia:
- 126 erizain.
- 15 fisioterapeuta.
- 14 langile sozial.
- 16 laborategiko teknikari.
- 14 ogzi-teknikari.
- 65 erizain-laguntzaile.
- 57 zaintzaile.
- 37 zeladore.
PEOIAK
Eskolaetxe Zurtagirik hauta:
- Burlata
- Miranda de Arga
- Lizarra
- Torres del Río
- Barañain
- Irulia

**LAN ESKAINTZA**
ELBARRI FISIKOAK
Lanpostu libreak:
- Gidariak
- Atezainak
- Lorezainak
- Jagole edo zaindariak
- Lanpostu erreserbatuak enkarnde publikoetan
SUKALDARIAK SUKALDE LAGUNTZAILEAK
- 23 lanpostu libre Osasunbidean.
- 36 ikastetxe, erresidentzietan eta...

Presta zaitez. Informazioa dohan.
948 199 596

# ORDOKI ALTZARIAK

## ESTILO UGARIKO MOBLEAK

kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA
ARRATSALDEZ IREKIA



**0 urtetik hasita**
**12 urteak bitarte**

**zure haurraren logela**
**egokitzen ahal duzu**
**moble berekin**



ERAKUSKETA:
Bittiria 26
SALTOKIA:
Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 948 63 77 80
NA - 31780 LESAKA

# KULTURKARI

PUBLIZITATEA • ZERBITZUAK

PUBLIZITATE AGENTZIA
Iragarkiak irrati, telebista
eta egunkarietan.

Publizitate kanpainen
antolaketa eta
gestioa.

DISEINU ETA PUBLIZITATEAN,
ZERBITZU INTEGRALA

Andutzeta 12
31760 ETXALAR
(0034) 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net



# L run t , m tz k 2

n

s r k n m tu n ,
t m tz k ,
h ztuk z uzun st uk r

**Hasteko,**

mus k r k n r tu
ntz r n s rtz k

**Gero,**

**Jul n k h n**
t h r n ntzut n n mus k
h ut tuk u ur tz t

**Eta bukatzeko,**

r- st n m tu
t ts n t uzt k
**rr r k n ntz n**

r tx n l h n h rtu zur tr xk

r AMEZTIA s r

BIXEN OSTATUA

EL CAFE

TITI

r I INTZI